AIARALDEA hemen



KINTOAK:
Amurrio eta Urduñako kintoak, herrietako lasaitasunari egurra emateko prest 7 or.

THAYLOR LUBANZADIO:
“Jendeak ezin du ez entzunarena egin irain arrazisten aurrean” 26-27 or.





Sexu heziketa, tabu izatetik arbelean egotera

URDUÑA 3
Urduñako Udaleko aurrekontuak onartu dituzte
6.862.268,64 euroko aurrekontua izango du Urduñako Udalak

LAUDIO 4
Laudioar bat hil da Galdakaon, lan-istripu batean
Hamar langile hil dira guztira urtea hasi zenetik Euskal Herrian lan istripuen ondorioz

AIARALDEA 8-9
Greba orokorraren ostean, borrokan jarraitzeko deia zabaldu dute
Greba batzordeek balorazio bilerak egingo dituzte aste honetan

KULTURA 20
Umoregile gisa emanaldiak eskaintzeari ekin dio Kaitin Allendek
Kazetaritza ogibidea du hizpide. Hainbat emanaldi ditu lotuta dagoeneko

KIROLA 28
Etxaurren Ikastolako Krosa egingo dute datorren igandean
Eskola kiroleko sei lasterketa egingo dira guztira, hainbat kategoriatakoak

herriz herri

Orozko

Iragan ostiralean sinatu zuten akordioa bi aldeek. Kasuak izandako oihartzunak eta eginiko mobilizazioek aldatu dute enpresaren jarrera, udan ez baitzegoen negoziatzeko prest. Honekin bi dira Aiaraldeko langileriak azken bi hilabeteetan lortu dituen garaipenak, Berriak supermerkatuetako beharginek aurreakordioa lortu baitzuten abenduan.

Garaipena Artiachen: Kaleratutako lau emakumeak berriz onartu eta finko egingo dituzte



Testua **Txabi Alvarado Bañares**



Ainhoa Marigorta, Sonia Rivera, Amaia Laconcha eta Azucena Gardeazabal, epaitegiaren aurrean. **LAB**

Artiachetik kaleratutako lau emakumeak berronartu eta finko egingo dituzte. Hala jakinarazi du LAB sindikatuak prentsa ohar baten bidez. Akordioa sinatu zuten atzo langileek eta zuzendaritzak. Udazkenean egin zuten lehen epaiketa, emakumeetako baten kasuarekin. Bere kaleratzea baliogabetzat jo zuen epaileak, baina enpresako zuzendaritzak epaia errekurritu zuen.

"Urtarrilaren 16an beste epaiketa bat egin behar zen, baina bertan behera uztea erabaki genuen akordio kolektibo batera heltzeko asmoarekin. Orain akordioa sinatu da 4 langile berronartzearekin", azaldu du sindikatuak, "akordioa lortu ondoren, jarraipena egingo dugu enpresak enpresa-batzordearen aurrean iragarri duen kontratazio politikaren aldaketa etorkizuneko kontratazio-politika gardena izan dadin".

Urtebete borrokan

Modu horretan eman zaio amaiera ia urtebete luzatutako lan gatazkari. 2019 hasieran jo zuten emakumeek lan ikuskaritzara. Urte asko zeramaten Artiachek Orozkon duen fabrikan lanean (6-17 urte artean), baina enpresak ez zituen finkoak egiten. Behin behineko kontratu batetik bestera salto arazi egiten zien zuzendaritzak. Ainhoa Marigortaren egoera bereziki deigarria zen: 16 urtetan behin behineko 750 kontratu egin zizkion enpresak.

"Behin behineko kontratuekin nazkatuta amaitzen duzu. Ez duzu familia bizitzarik, telefono-deiaren zain zaudelako uneoro. Zure bikotekidearekin eztabaidatzen duzu lanagatik. Dena utzi behar duzu". Hala azaldu zuen beste emakumeetako batek, Amaia Laconchak, Aiaraldea hedabidean eginiko elkarrizketa batean.

Lan ikuskaritzak arrazoia eman zien langileei: fabrikan behin behinekotasun handia dagoela eta enpresak emakumeei kontratu mugagabea egin behar ziela ondorioztatu zuen. Artiachek, ordea, beste gauza bat egitea erabaki zuen: langileekin zuen lan harremana etetea, kaleratzea, alegia.

Oihartzun handia

Orduan ekin zioten emakumeek egoera salatzeari. Hedabideetara jo zuten euren egoeraren berri ematera, eta oihartzun zabala lortu zuten, egunkari, irrati eta telebista askotan agertu baitzen euren kasua.

Iazko ekainean eskatu zuen lan ikuskaritzak emakumeak finko egitea, baina enpresak beharginak kaleratzea erabaki zuen

Mobilizazioak egin zituzten gero. Lantegiaren aurrean egin zuten lehena, eta Laudion bigarrena. Azken hori nahiko jendetsua izan zen, herritar ugari bertaratu baitziren kaleratutako emakumeei babesa eta elkartasuna adieraztera.

Ziurrenik, ekimen horiek izan ziren balantza langileen alde mugitu zutenak. Udan (manifestazioak egin baino lehen) adiskidetze-egintzak egin zituzten, baina enpresa ez zen horietako batera ere ez bertaratu. Oraingoan (mobilizazioen ostean), enpresa prest agertu da negoziatzeko eta emakumeen bi aldarri nagusiak abian jartzeko (berriz onartu eta kontratu finkoa egitea).

Bigarren garaipena

Artiachekoarekin bi dira Aiaraldeko langile mugimenduak azken bi hilabeteetan lortu dituen garaipenak. Abendu hasieran aurreakordioa lortu zuten Berriak supermerkatuetako langileek enpresako zuzendaritzarekin, hainbat lanuzte egin eta greba mugagabea abiatzeko deia mahai gainean jarri ostean.

Bada antzekotasunik bi borroken artean: egoera prekarioan dauden emakumeak izan dira protagonistak Artiachen zein Berriaken, eta herritar ugari batu dira bi lan gatazkak salatzeko egin diren mobilizazio eta ekimenetara. Aiaraldeko Mugimendu Feminista, adibidez, oso presente egon da bi borroketan, "elkartasun feminista" helarazteko.

herriz herri

Orozko

“Nagusilagun” programan izena emateko epea, otsailaren 14ra arte



Kultur etxean egingo dira saioak. **Aiaraldea.eus**

Testua
Julen Solaun Martinez

Orozkoko Udalak "Nagusilagun" programa aurkeztu du, 65 urtetik gora dituzten pertsonen artean ekintza fisikoak, kognitiboak eta sozialak bultzatzeko helburuarekin.

Hiru hilabetetan zehar garatuko da programa, eta ordu eta erdiko saioak egingo dira astero Kultur Etxean. Hara joan ahal izateko taxi zerbitzua eskainiko dute udaletik. Zerbitzu horretaz baliatu ahal izateko inskripzioa egiterako orduan egin beharko da eskaera.

Izen ematea

Otsailaren 14ra arte eman ahalko dute izena parte hartu nahi duten pertsonek udaleko gizarte zerbitzuetan, 8:00etatik 15:00etara; edo Induma informazio bulegoan, astelehen eta asteazkenetan 18:30etik 20:30era.

Helburuak

Programaren helburua “mendekotasun egoerak prebenitzea” izango da, baita “autonomia pertsonala eta integrazio komunitarioa sustatzea ere”, tokiko erakundeak azaldu duenez. Alderdi fisikoan “gerontogimnasia” eta “psikomotrizitatea” lantzeko ariketak egingo dira; eta alde kognitiboan kalkulua eta memoria indartuko dira, besteak beste.

Alderdi sozialari dagokionez, pertsonen arteko harremanak jorratuko dira programaren saioetan.



Urduña

6.862.268,64 euroko aurrekontua izango du Urduñako Udalak



Udal Osoko Bilkuran onartu ziren aurrekontuak. **Urduñako Udala**

Testua
Aitor Aspuru Saez

6.862.268,64 euroko aurrekontuak onartu dituzte Urduñako Udal Osoko Bilkuran 2020. urterako. Diru hau udalaren eta Urduñederra eta Urduñako Arkupea sozietateen artean banatuko da, azken bi hauek ere udalaren menpe daudelarik. EH Bilduko zinegotziek aldeko botoa eman zuten eta EAJkoak abstenitu egin ziren.

Dena den, 4.934.583,14 euro bakarrik kudeatuko ditu zuzenean udalak. Kopuru horretatik, 1.218.852,32 euro “langileen gastuetara” bideratuko dira. Beste 2.435.378,34 euro ondasun arruntetako gastuetarako (energia gastua, argiteria eta ura, gazteria, jaiak eta euskara, besteak beste) eta kontratatutako zerbitzuetarako (zabor-bilketa, bideen eta barnealdeen garbiketa, Alondegia eta arkitektura-zerbitzuak, besteak beste) erabiliko dira.

894.513,37 euro inbertituko dira hitzarmenetan eta diru-laguntzetan, eta inbertsioetara beste 203.000 euro bideratuko dira. Udalaren zorra ordaindu ahal izateko 155.600 euro bidaliko dira eta, falta diren 27.239,11 euroak, Arkupea sozietateko inbertsioetan sartuko dira.

4.934.583,14 euro horietako 109.175 Kutxabankeko 2004 eta 2005 urteetako bi kreditu ordaintzera bideratuko dira, eta beste 44.352 euro IDAEri eman beharko zaizkio, 2016ko LED argietan egindako aldaketagatik. Udalaren zor publikoa, 2019ko abenduaren 31n, 866.178,14 eurokoa zen Kutxabankekin, eta beste 399.167,45 eurokoa IDAErekin.

EH Bilduko zinegotziek aldeko botoa eman zuten eta EAJkoak abstenitu egin ziren

894.513,37 euro inbertituko dira hitzarmenetan eta diru-laguntzetan, eta inbertsioetara beste 203.000 euro bideratuko dira

Kontuan hartu beharra dago 6.862.268,64 euroko zifrak aurrekontu kontsolidatuei egiten diela men. Hau da, Urduñederraren eta Urduñako Arkupearen aurrekontuak ere barne hartzen ditu. Urduñederrak 514.525,26 euroko aurrekontua izango du; udalak 319.816,88 euro bideratuta (hau da, 4.934.583,14 euro horietatik aterata). Gauzak hala, sozietateak 194.708,38 euro izango ditu udalak emandako diruaz gain.

Urduñako Arkupea sozietateak, berriz, 2.105.721,60 euroko aurrekontua izango du, udalaren 277.908,60 euro jasota (Urduñederrarekin gertatzen den prozesu berbera gertatzen da): 1.827.813 euro izango ditu udalaren laguntzetatik aparte.

Urduñederrak 2007ko beste bi kreditu ordaindu beharko ditu aurten. Alde batetik, La Caixari 49.107,90 euro ordaindu beharko dizkio, eta Kutxabanki beste 85.701,24 euro. Urduñederrak 1.611.567,10 euroko zorra zuen bientitateekin 2019ko abenduaren 31n.

herriz herri

Aiara

Hasi dira obrak Aiarako udal igerilekuetan estalitako gunea egiteko



Hiru hilabetez luzatuko dira obrak. **Aiaraldea.eus**

Testua
Julen Solaun Martinez

Hasi dira Aiarako udal igerilekuetan estalitako gune bat jartzeko lanak, eta hurrengo hiru hilabeteetan zehar luzatuko dira. Obrek 104.868,87 euroko kostua izango dute, eta Arabako Aldundiaren Foru Planak finantzatuko ditu. Aiarako alkateak, Gentza Alamillok, adierazi du "bizilagunen aisialdi beharrei behin-betiko irtenbidea" bilatzea dela obren helburua, orain arte karpa desmuntagarriak jartzen baitziren, "horrek dakarren langile baliabideen inbertsioarekin zein baliabide ekonomikoekin egindako lan eta ahaleginekin".

Orain, berriz, bizilagunek "topagune" gisa erabili ahalko dute estalitako gunea, eta "sozializatzeko eta aisialdiaz gozatzeko" aukera izango dutela ere aurreikusi du alkateak.

Artziniega

Artziniegako uraren kudeaketa bere gain hartzea proposatu du Kantauriko Urkidetzak

Testua
Julen Solaun Martinez

Kantauriko Urkidetza ur partzuergoak beheko ur sarearen kudeaketa bere gain hartzea proposatu dio Artziniegako Udalari. Hau da: ur sarearen kudeaketa, mantentze-lanak, ustiapena eta birjarpena partzuergoak kudeatzea. Gaur egun udalaren eta partzuergoaren artean egiten dute lan hori. Proposamena aurrera aterako balitz, partzuergoak uraren ziklo osoa modu integralean kudeatuko luke.

Bilera irekia

Iragan astean bilera irekia egin zuten udaletxean, proposamena aurkezteko. 20 pertsona baino gehiago bertaratu ziren Kantauriko Urkidetzako lehendakariaren eta gerentearen azalpenak entzutera.

Datozen hilabeteetan hartuko du udalak erabakia, Joseba Vivanco alkateak azaldu duenez.

Laudio

Laudioar bat hil da GHI Hornos Industrialesen, lan-istripu batean



Iragan osteguneko greba orokorrean lan heriotzak salatzeko eginiko ekintzetako baten irudia. **Aiaraldea.eus**

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Laudioko 40 urteko gizon bat hil zen astelehenean Galdakaoko GHI Hornos Industriales enpresan, lan istripu baten ondorioz. Ertzaintzak 15:22an jaso zuen istripuaren abisua. Pieza bat erori zitzaion gainera beharginari. Osalanek hartu du gertatutakoa ikertzeko ardura.

Hamar heriotza aurten

Hamaika izan dira 2020an (hilabete bakar batean) Euskal Herrian zendu diren beharginak, atzo beste bat hil baitzen Santurtzin. Geroz eta gehiago luzatzen ari den zerrenda da lan heriotzena. 2007tik hona 21 langile zendu dira eskualdean lan-istripuen ondorioz, astelehenekoa kontatuta. Iazko udan, adibidez, bi behargin zendu ziren Tubacexen, uztailean eta irailean.

Industrialdea Poligonoko espaloiak konpontzeari ekin dio udalak

Testua
Aitor Aspuru Saez



Industrialdea Poligonoan lanak hasi dituzte dagoeneko. **Aiaraldea.eus**

228.060,47 euroko inbertsioa abiatu du Laudioko Udalak Industrialdea Poligonoan bertako pabiloien espaloiek irisgarritasun araudia bete dezaten. Maiatzean amaituko dira obrak.

Alde batetik, espaloiak berrituko dituzte. Platanondoak kendu eta horien ordez urkiak landatuko dituzte. Espezie horren hostoak errazago garbitzen dira eta sustraiak ez dira zabaltzen aldeetara, baizik eta barrurantz. Horrek kalteak ekidingo ditu espaloian.

Horrez gain, zebrabideak prestatuko dituzte eta espaloiak egokituko dira irisgarritasun legea betetzeko. Eurien ura jasotzeko sistemak ere berrituko dituzte. Pabiloien aurrean birrinduta dauden zenbait elementu kenduko dute, hornitzaileen bidea oztopatzen dutelako, baina asko berrituko dira.

Aiaraldea

8 urteko ibilbidea egin du Naturayala blogak



Eskualdeko animaliei buruzko artikulu eta argazki bildumak argitaratu dituzte blogean, besteak beste. **Naturayala.com**

Testua
Julen Solaun Martinez

Zortzi urte bete berri ditu Aiaraldeko naturaren inguruan aritu ohi den Naturayala blogak. Hainbat motatako ekintza eta artikulu bultzatuta, 400.000 bisita baino gehiago lortu dituzte urte hauetan zehar. Kideetako batek, Xabi Iturratek, adierazitakoaren arabera, "blogaren aktibitatearekin jarraitzea nahikoa da" haientzat, eta jarraitze hutsa "garaipena" dela argitu du.

Webguneko sarrerez aparte, hainbat ekintza egin ohi dituzte kideek. Adibidez, milanoei transmisoreak jarri edo saguzarren koloniak aurkitu dituzte urte hauetan zehar. Kontua da haiek euren kasa egindako lanak aditzera emateko erabiltzen dutela webgunea, Iturratek zehaztu duenez: "Adibidez, saguzarren kontua Salbagoro elkartean gauden pertsonok egin genuen". Hortaz, nahiz eta blogerako "gauza berezirik" ez egin, kide bakoitzaren lanetako batzuk horra igotzen dituzte.

Hala ere, haien lanak "ezagutzera emateko" baliagarria egin zaiela aitortzen du Iturratek, baina sarrerak "noraino heltzen diren edo jendearengan zer motatako eragina daukaten" ez dakitela nabarmentzen du ere.

Harrera ona izan du blogak: 400.000 bisita baino gehiago lortu dituzte zortzi urtean

Webguneko sarrerez aparte, hainbat ekintza egin ohi dituzte kideek

Lan boluntarioa

Kideen partaidetza bakoitzaren denbora librearen araberakoa dela gaineratu du Naturayalako kideak: "Denok ez dugu era berdinean parte hartzen, batzuek sarrera gehiago egiten dituzte, beste batzuek zer edo zer idazten dute puntualki". Beste batzuetan, ezagunei eskatzen diete blogerako sarrerak egiteko. Maider Iglesias amurrioarrak, adibidez, Austrialiako suteen inguruko artikulu bat egin zuen urte hasieran, han zegoela aprobetxatuta.

Etorkizunari begira, blogarekin plan zehatzik ez dutela aitortzen du, baina orain arteko erritmoarekin jarraitzea gustatuko litzaiokeela dio kideak. Nahiz eta "sarrera gehiago egitea" eta argitaratutakoak "gehiago lantzea" gustatuko litzaiekeela ere adierazi. Baina, denbora falta dela eta, normalean ezinezkoa suertatzen zaie, aitortu dutenez.

Udan umeak hartzeko familiak bilatzen ari da Bikarte elkartea



Iaz eskualdean egondako umeetako batzuk. **Bikarte elkartea**

Testua
Julen Solaun Martinez

Errusia eta Bielorrusiako umeak jasotzen ditu elkarte horrek. Hainbat baldintza bete beharko dituzte familiek: 65 urtetik beherakoak izatea, inolako aurrekari penalik edo sexualik ez izatea, harrera galarazten duen inolako gaixotasunik ez izatea eta behar adina denbora izatea. Informazio gehiago behar edo nahi izatekotan 605 70 90 22 eta 687 86 03 95 telefonoak jarri dituzte eskura elkartetik.

JARRI EZAZU
ZURE IRAGARKIA
hemen

KOMUNIKAZIO KANPAINA BAT MARTXAN JARRI NAHI DUZU?

ZURE PRODUKTU, ZERBITZU EDO EKITALDIAK IRAGARRI NAHI DITUZU?

IDATZI
publizitatea@aiaraldea.eus

EDO DEITU
688 625 394 zenbakira



herriz herri

Okondo

Kirola bultzatzeko akordioa sinatu nahi du Okondoko Udalak

Testua
Julen Solaun Martinez

Okondoko udalak, "kirol jarduerari dagokionez, bizilagunen bizi-kalitatea hobetzeko" akordio bat sinatzea espero du datorren asteetan zehar. Esaterako, futbol zelaia "handitzeko eta berreskuratzeko" lanean ari direla jakinarazi du EAJren udal gobernuak.

Bestalde, Osakidetzarekin batera ari dira lanean martxotik aurrera herriko adinekoei eskainiko zaizkien ikastaroak adosteko. Era berean, "lan egiteko moduari 180 graduko bira emateko", auzokideekin "kezkak eta beharrak" ezagutzeko bilerak egitea ere aurreikusi dute, "udal gisa erantzun ahal izateko".

Azken hilabeteetan burutu den kaleen aldaketa egiteko, aldiz, zailtasunak izan dituztela aitortu dute jeltzaleek, nahiz eta dagoeneko "azken fasean" daudela adierazi, eta herriko bizileku eta establezimenduetan plakak jartzen adi direla azaldu dute.

Udal gobernura heldu zirenetik egindako hainbat neurri eta aldaketa ere azpimarratu nahi izan dituzte oharrean. Esaterako, udal langile bat jarri dute eskolan familia eta eguneroko bizitza bateratzen laguntzeko. Haurrak ikastetxetik autobus geltokiraino laguntzen ditu pertsona horrek.

Gainera, belar-sastrakak kentzeko eta basoa berritzeko zerbitzua azpikontratatu dute, arazo logistikoak argudiatuta: "Lanaren dimentsioengatik ezinezkoa zen baliabide propioekin garatzea".

Munduko Gin Txapelketako finalean egongo da Astobiza upategia



Okondoko Txakolin Jaian egindako argazkia. **Astobiza upategia**

Testua
Aitor Aspuru Saez

Estatu Espainiarreko ginik onena izendatua izan eta gero, Astobiza upategiko produktuak edari horren munduko txapelketako finalean parte hartuko du, London Dry Gin kategorian, hain zuzen ere.

Otsailaren 27an izango da finala eta Astobizako ekoizleek egun horretan jakingo dute nor den irabazlea. Berez, gin finala ez ezik, bestelako edarien txapeldunak jakinaraziko dituzte ere "World Drinks Awards" lehiaketan: tekila, rona, whiskya... Dena den, Jon Zubeldia Astobizako gerentea oso pozik agertu da jadanik Espainiako Estatuko ginik onena hautatu dutelako: "mezu hori gaineratu nahi dugu, onenak garela esparru horretan, alegia".

Urtebete eta hilabete batzuk ditu Astobizako ginak eta Basque Moonshiners destilategiarekin gauzatu dute egitasmoa. Jon Zubeldiaren ustez, euren sekretua da tokiko hainbat osagai erabiltzen dutela: "Osagai botanikoak gureak dira. Ipurua, ordea, Aiaraldeko ekoizleek eman digute. Azkenik, zitrikoak Euskal Herriko iparraldean eskuratu ditugu. Fresarabako marrubiak ere erabili ditugu".

Amurrio

Amurrioko Txirrindulari Elkarteak jasoko du Urrezko Guk Saria

Testua
Julen Solaun Martines



Elkarteak eginiko hitzaldi baten irudia. **Amurrioko Txirrindulari Elkartea**

Urrezko Guk Saria jasoko du Amurrioko Txirrindulari Elkarteak martxoaren 14an, bere mende erdiko ibilbidearen aitortza gisa. 19:30ean izango da ekitaldia Amurrio Antzokian.

Elkarteak egiten duen lana goraipatu du Amurrioko Udalak: "35 txirrindularik osatutako txirrindularitza eskola du, bere lau kategorietan: aurrebenjaminetan, benjaminetan, alebinetan eta infantiletan, eta baita duela gutxi sortutako junior mailako talde bat ere, 5 kiderekin. Gainera, urtean zehar kirol proba hauek antolatzeaz arduratzen da: Aiarako Bira, Amurrioko Sari Nagusia, San Jose Saria, lineako txirrindularitza eskolak, Aiara zirkuitoa, ibilaldia alforjekin eta BTT txirrindularitza eskolak".

Urteurreneko egitaraua

Hainbat ekintza programatu ditu aurten Amurrioko Txirrindularitza Elkarteak bere berrogeita hamargarren urteurrena ospatzeko. Garrantzitsuena Euskal Herriko Itzuliaren bigarren etapako irteera izango da, apirilaren 7an. Hala ere, antzinako txirrindularitzaren inguruko erakusketa ere atonduko dute, Amurrioko Etxolan apirilaren 4tik 30era.

Egingo den lehenengo ekintza kadete mailako Aiarako Biraren eta elkarteko txirrindularitza taldeen aurkezpena izango da, Amurrioko Antzokian martxoaren 13an. Ondoren, apirilaren 3an, Antzokian ere, erakusketaren eta 50. urteurrenaren bideoaren aurkezpenak egingo dituzte.

Lehenengo lau ekintza horiek burututa, udazkenera arte itxaron beharko da: urriaren 31n, Matias Landaburu eskolan, denboraldi amaierako bazkaria ospatuko da. Txirrindulari profesionalen partaidetzarekin egingo da mahaingurua azaroaren 6an eta, amaitzeko, taldearen historiari buruzko liburuaren aurkezpena burutuko dute azaroaren 13an.

Aldaiturriaga eta Maskuribai enpresa guneetako sarbideak konpondu dituzte

Testua
Julen Solaun Martines



Aldaiturriagako sarrera, hobetu ostean. **Amurrioko Udala**

Amurrioko Aldaiturriaga eta Maskuribai enpresa guneetako sarbideetako galtzadak eraberritu dituzte Amurrion, "ibilgailuen zirkulazioa seguruagoa izateko helburuarekin".

Udalak ohar batean zehaztu duenez, obraren kostua 41.916,63 eurokoa izan da, zeinaren zati bat Eusko Jaurlaritzak ordaindu duen. Landako kaletik egiten den Maskuribaiko iparraldeko sarrera, esaterako, 4,5 metroraino zabaldu da, eta bidean zeuden zulo txikiak kendu dira. Aldaiturriaga eremuan, berriz, 1.250 metro koadro galtzada konpondu dira, baita kamioien aparkalekuaren parean dagoen oinezkoentzako pasabidea ere, espaloien altuera berean jarrita. Errepideko marka horizontalak berriro margotu dituzte eta bideetako seinaleak markatu dira. Oinezkoei dagokienez, bi pasabidetan 50 metro karratu margotu dira, eta baita oinezkoek babesguneak inguratzen dituzten 400 metro ere.

Amurrio

“84 kinto izango gara aurten”



ADRIAN FERNANDEZ PEREZ eta LEIRE EGIA ARRIOLA (Amurrio, 2002) DIRA AURTENGO KINTOETAKO BI. OSTIRALEKO FESTAREN ATARIAN, PRESTAKETA LANETAN BURUBELARRI TOPATU DITUGU.



Testua **Txabi Alvarado Bañares**

Zuek antolatuko duzue aurtengo kintoen festa. Zer prestatu duzue ostiralerako?

Hainbat talde kontratatu ditugu festa animatzeko: erromeria, DJa eta elektrotxaranga egongo dira.

Zein da egun horretarako zuen plana?

7an goizean eskolaz eskola joango gara. Herrigunean abestuko dugu gero. Arratsaldean, Bidekon bazkalduko dugu; eta iluntzean elektrotxaranga, erromeria eta DJa egongo dira ondo pasatzeko.

Zergatik animatu beharko lirateke gainontzeko gazteak?

Gure ustez aukera paregabea egongo da Amurrioko giroaz gozatzeko. Gazteen jaialdia izango da, elkar ezagutu eta ondo pasatzeko.

Zein beste ekintza egingo dituzue?

Otsailaren 4an, asteartean, talde bakoitzak Amurrioko gune batean abestuko du, dirua lortzeko. Larrinbera, Maroñora, Lezamara... joango gara baserrietatik kantatzera. Gauean gure artean egingo dugu festa tabernaren batean.

Nolakoa izan da aurtengo antolaketa?

84 kinto izango gara aurten. Ostiralero egin dugu bilera denon artean gauzak antolatzeko. Horrez gain, Markosek entrenatu gaitu abestia ikasi eta erritmoa eramateko. Hilaren 4an eta 7an dena ondo ateratzea nahi dugu. Ardurak guztion artean banatu ditugu, nahiko ondo antolatu dugu.

Zelan daramatzazue entseguak?

Kosta zaigu, baina ondo!

Kintoak tradizio handiko jaia dira. Zer da zuentzat kinto izatea? Nola bizi duzue zuek?

Zaila da azaltzea guretzat kintoa izatea zer den. Nire ustez, gure adineko guztiak biltzeko aukera zoragarria da. Pertsona batzuek egunero ikusten dugu elkar, baina beste batzuekin ez. Txikiei ilusioa egiten die pegatak banatzeak, eta gu abesten ikusteak.

> **“Aukera paregabea egongo da Amurrioko giroaz gozatzeko. Gazteen jaialdia izango da”**

Nolakoak izango dira pegatak ba?

Whatsapp taldera bidali zituzten hiru edo lau zirriborro, eta bertan bozkatu genuen. Oso ondo atera dira.

Kintoak agurtzeko modu dira zuentzat?

Nolabait esateko, bai. Zaraobe Institutuan gauden guztiok gure bidea hartuko dugu hemendik aurrera.



analisia

Astebete igaro da greba orokorretik. Aiaraldean jarraipen zabala izan zuen ekimenak eta eskualdeko herri handietako saltoki gehienek itxi zituzten ateak. Udalerri txikietan, aldiz, irregularragoa izan zen oihartzuna. Horretaz guztiaz hitz egiteko balorazio bilerak egingo dituzte greba batzordeek datozen egunetan.

Greba orokorraren ostean zer?



Testua **Txabi Alvarado Bañares**

"Borrokan jarraituko dugu". Hori izan zen iragan asteko greba orokorrean eskualdean egin ziren ekitaldietan errepikatu zen esaldia. Astebete igaro da ordutik hona, eta greba batzordeak abian daude dagoeneko. Datozen egunetan egingo dituzte balorazio bilerak Laudion eta Amurrion.

Seguru asko, egongo da zer hausnartu, baloratu eta eztabaidatu bilera horietan. Gauza asko gertatu ziren goizeko bostetako pikeetatik arratsaldeko mobilizazioetara.

Antolatzaileen lehen balorazioa positiboa izan zen. "Eskualde osoan goizean piketeetan gazte eta langile ugarik zeharkatu dutugu industriagune guztiak. Eguerdian, 150.000 pertsona mobilizatu dira hiriburuetako mobilizazioetan", azaldu zuten Amurrioko manifestazioaren ostean eginiko ekitaldian.

Herri txikietan, aldiz, irregularra izan zen jarraipena. Urduñan, Arrankudiagan eta Arakaldon ere eragin handia izan zuen grebak. Aiaran, Okondon, Orozkon eta Artziniegan, aldiz, normaltasuna izan zen nagusi.

Aiarako PSE-EEk, bere aldetik, oharra plazaratu zuen greba egunean bertan, eskualdean barrena jazotako "ekintza bandalikoak" salatzeko.

Saltoki txikiei eskerrak

Oso nabarmena izan zen baita ere grebaren jarraipena hirugarren sektorean. Saltoki gehienek jaitsi zuten pertsiana. Amurrion taberna bakanen bat eta Eroski denda soilik mantendu ziren zabalik. Laudion, aldiz, supermerkatu kate horretako saltoki handiak ere itxi zituen ateak. Oso deigarria izan zen hori, 2011, 2012 eta 2013. urteetan egondako greba orokorretan irekita egon baitzen.

Gauzak hala, saltoki txikiei eskerrak emateko gutuna plazaratu zuten greba batzordeek biharamunean. "Dendari txiki, ile apaintzaile, tabernari... autonomoentzat, azken finean, bere negozioa egun batez ixteak zer eragozpen dakarren badakigu", azaldu zuten, "horregatik, eskerrik asko, lan, pentsio eta bizitza duin batzuen aldeko greba egunarekin bat egiteagatik. Guri dagokigu orain beraiekiko elkartasun keinuak izaten jarraitzea". Gauzak hala, saltoki txiki horietan kontsumitzeko deia luzatu zuten gutunaren bidez.

Mobilizazio jendetsuak

Baina arratsaldeko mobilizazioak ekarri zituzten eguneko unerik ikusgarrienak. Aurreko grebetan ez bezala, bi mobilizazio zentral egitea erabaki zuten greba batzordeek, Amurrion bata eta Laudion bezala. Bi ekimen ordu berean egiteak jendea sakabanatuko zuela pentsatu ahalko luke norbaitek, baina ez zen halakorik gertatu. Amurrion ehunka lagun batu ziren manifestaziora, eta Laudion 1.000 herritar baino gehiago egon ziren.

Balorazio kualitatiboa

Hala ere, egin daiteke grebaren bestelako balorazio bat, ez horren kuatitatiboa. Denbora asko igaro zen aurreko greba orokorretik, 2013an izan baitzen. Baina gaur egungo Aiaraldea ez da 2013koaren berdina. Mugimendu feministaren gorakadak eta pentsiodunen protestek, besteak beste, eskualdeko egoera aldatu dute, eta funtsezkoak izan dira oraingo greba orokorrari begira.

Zenbait praktika berri jarri dira mahai gainean, duela zazpi urte planteatu egiten ez zirenak. Zaintza lanak kolektibizatzeko guneak atondu dira, besteak beste, eta aipatutako mugimendu horien presentzia nabarmena izan da grebaren aurreko asteetan eta egunean bertan.

Goizeko bostetako piketeetan ikusi ahal izan zen hori. Bertan ez ziren sindikatuetako ordezkariak eta industriako beharginak soilik egon. Gazteak, mugimendu feministako kideak eta pentsionistak ere bertaratu ziren. Sektore ezberdinen arteko elkarlan horrek orube interesgarria sortu dezake etorkizuneko borroketarako.





MOBILIZAZIO JENDETSUAK

Arratsaldeko mobilizazioak bereziki jendetsuak izan ziren. Amurrion ehunka herritar batu ziren eta Laudion, aldiz, mila baino gehiago.







analisia

SALTOKIEN JARRAIPENA

Saltokien jarraipena oso handia izan zen. Laudion establezimendu gehienek jaitsi zuten pertsiana, Eroski handia barne. Amurrion, aldiz, supermerkatu kate horretako saltokia izan zen irekita mantendu zen bakarrenetarikoa.













PIKETEAK TUBACEXEN

Gazte Grbea Komiteak mobilizazioa eta "eskualdeko pikete zentrala" deitu zituen urtarrilaren 29ko iluntzerako. Dozenaka lagun batu ziren Tubacexen Laudioko lantegiaren aurrean. Ertzaintza bertaratutakoen aurka oldartu zen lantegira sartu nahi zuten beharginei espazioa egiteko.



ZAINTZA GUNEAK

Zaintza gune komunitarioak atondu ziren Laudion, Amurrion eta Aretan. Horrez gain, grebalarientzako atseden guneak eta hamaiketakoa ere prestatu ziren.





Greba orokorraren argazki eta bideo guztiak Aiaraldea.eus atarian daude ikusgai.

elkarrizketa

“Ikasleei oro har, asko interesatzen zaie sexua, onerako eta txarrerako”

ANE AGIRRE (Laudio, 1993) URTXINTXA ESKOLAREN ESKUTIK ETA BILBOKO UDALAREKIN EGINDAKO HITZARMENARI ESKER, HARREMAN SEXU-AFEKTIBOEI, ANIZTASUNARI ETA FEMINISMOARI BURUZKO TAILERRAK ESKAINTZEN DITU BILBOKO IKASTETXEETAN.



Testua eta argazkia
Aitor Aspuru Saez

Zertan egiten duzu lan?

Lehen Hezkuntzan, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan eta Batxilergoan egiten dugu lan, baita Goi Zikloekin ere, edo irakasleekin.

Indarkeria matxista prebenitzeko programa, batez ere, DBHko ikasleei dago bideratua, baina ikasleen zikloaren arabera moldatzen dugu, dituzten gaitasun kognitiboen arabera.

Gainera, gaia landu gabe dagoenez, batzuetan lan arloan dauden estereotipoetan zentratzen gara, edo harreman sexu-afektiboetan... Zikloaren arabera. Modu horretan ere bermatzen dugu urterik urte trebakuntzarekin jarraitzea.

Zeintzuk dira eduki arruntenak?

Sexuari eta generoari, maitasun erromantikoari eta indarkeriari buruz aritzen gara. Hiru blokeak dira eta hiru saiotan jorratzen ditugu. Sexualitatea ere tratatzen dugu.

Nola egiten diozue aurre gazteen egungo egoerari esparru sexu-afektiboan?

Gauzak aldatu dira, argi eta garbi, eta jendeak informazio pilo dauka. Gazteek asko dakite eta batzuetan ezustean harrapatzen gaituzte eta ez dauka zentzurik zenbait gai azaltzeak, erabat barneratuta baitituzte.

Hala ere, estereotipo ugari dago eta horretan lanean jarraitzeko beharra dago. Enpatia izatea asko kostatzen zaigu eta baita gazteei ere; eurena kontatzen dute, baina ez dute entzuten albokoak adierazi behar duena. Horregatik, informazio ugari izan arren, enpatia falta horrek komunikazioa mozten du.

Zer nolako jarrera dute umeek eta gazteek saioen aurrean?

Ikasleek, oro har, interes handia daukate, onerako eta txarrerako. Gaiak zipriztinduta daude, gizarteko parte bat diren neurrian, badakite gaia pil-pilean dagoela eta interesgarria da eurentzat. Orokorrean, eskertzen dute horretaz hitz egitea era aske batean, taburik gabe, naturaltasunez.

Pornografiaren fenomenoa lantzen duzue?

Bai, pil-pilean dagoen gaietako bat da. Sustraitik heldu behar zaion fenomenoa da. Ulertu behar da nola erabiltzen diren pornografia edota sare sozialak. Pornografiak,



berez, ez du txarra izan behar, baina kontsumitzen den pornografia mota gehiena nahiko bortitza eta matxista da askotan.

Egun, gure hezkuntza sexuala ere bada, zoritxarrez. Gure desioari forma ematen dio eta horretaz kontziente izan behar gara. Berez, klaseetan aipatzen dugunean pornografia landuko dugula, lehenengo erantzuna aztoratzea da. Ez dute espero era zuzenean horri buruz mintzatuko garenik. Dena den, gero oso interesgarria da ikustea zer nolako gaitasuna duten horri buruz hausnartzeko eta detektatzeko zer dagoen gaizki eta zer ondo.

Googlen gai bilatuenetakoa da pornografia. Hortaz, ardura bat daukagu, garrantzitsua da guztiok ulertzea nola erabiltzen den eta kontzientzia apur bat izatea.

Horri buruz hitz egitea, tabu horretatik ateratzea eta gauzak identifikatzea garrantzitsua da: zer den eraso bat, txantxa bat eta sare sozialen bitartez dena korapilatzen da. Saiatzen gara kontzeptuak argitzen eta identifikatzen zer den eraso bat eta zer ez. Norberaren mugak eta besteenak ezagutzen laguntzen dugu.

Pertsona batzuek agian ez dute guztiz ulertzen harreman sexu-afektiboak sare sozialetara lotzea.

Bai, hori gertatzen da maiz, ez dutela lotura sumatzen, baina adibideak jarrita hobeto ulertzen da. Adibidez, zergatik daude sare sozialetan emakumezkoen titiburuak zentsuratuak eta gizonezkoenak ez? Guztion artean eztabaidatzen dugu eta apurka-apurka heltzen gara gure sinismenetara.

Zeintzuk dira tailer horien helburuak? Badirudi badagoela jendea ez duena ulertzen horrelako gaiak hezkuntza publikoan lantzearen garrantzia.

Helburu nagusia da norberak bere sexualitatea eta generoa garatzeko tresnak izatea. Horrez gain, indarkeria edo bazterketa pairatu dutenak babesteko saioak ere badira, oraindik ere kasu pilo dago.

Rolak oso barneraturik ditugu eta diskurtsoa eta teoria ezagutu arren, pribilegioei uko egitea oso zaila da, eta enpatiaz jokatzea eta bestea ulertzea. Zenbait jarrera errepikatzen ditugu "guay"-ak direlako eta ez gara kontziente.

Ume homosexual edo transexualen aurkako jarrerak ohikoak dira oraindik?

Bai, gertatzen dira. Espazio gehiago daukate mutil heterosexualek klasean hitza hartzerakoan, fisikoki, bortitzagoak dira, orokorrean, gehiago entzuten zaie neska batekin alderatuta... Hegemonia hori jazotzen da geletan eta ghettoak sortzeko kultura ere badago. Talde mistoetan sumatzen da nortzuk mintzatzen diren erraztasun gehiagoz.

Mutil heterosexualek askatasun gehiago daukate adierazteko, besteek baino. Gure lana da horretaz jabetzea, ikus dezaten batzuentzat bizitza errazagoa dela, besteentzat baino.

Feminismoari buruz hitz egiten duzuenean, zein da gazteen erantzuna?

Lanean hasi baino lehen ideia bat nuen, baina guztiz aldatu nuen. "Ghetto" batean bizi nintzenez, matxismoa urrun zegoen zerbait zela uste nuen, edo beste era batean ematen zela edo gaindituta genuela, baina ez da inondik inora horrela.

Feminismoaren kontrako erresistentzia handiak daude, eta harritzen nau. Leku orotan dago, Zara dendakatean eta guzti, eta hala ere badago feminismoa zer den ulertzen ez duena. Batzuentzat oraindik oso bortitza da. Beldurraren politiken garaipena da: jendeak, eskubideen bila, zenbait muga ez gainditzea eskatzen du, eremu ezezagunetan ez sartzeko. Ikasleek, nahiz eta diskurtsoaren zati batekin ados egon, oraindik uste dute feminismoa hitz handiegia dela.

"Guraso PIN" afera nola bizitzen ari zarete ikastetxeetan?

Eskoletan, orokorrean, inoiz ez dugu arazorik izan. Ikastetxe batzuetan erresistentzia gehiago daude, baina eskuin muturreko estrategia da; beldurra sustatzea. Esaten dute astakeriak irakasten ditugula, baina akusazioek ez daukate inolako fundamenturik. Ez da egia eta oso larria da. Guztioi eragiten digu, baina bereziki adingabeak kaltetzen ditu, euren eskubideak urratzeko estrategia baita.

Eraso zuzena da haur eta gazteek ez dezaten izan aukera askatasunean, aniztasunean eta errespetuan hezteko. Guk ez dugu ezer asmatu, jende orok dauka eskubidea bere sexualitatea eta identitatea modu askean hautatzeko.

Giro horrek larritasuna sortzen dit, eta gero geletan arazoak agertzen diren arren, lantzen eta konpontzen ditugu, horretarako baikaude.

“Esaten dute astakeriak irakasten ditugula, baina akusazioek ez daukate inolako funtsik”

Zein arazo mota?

Badago jendea ukatzen duena arrazismoa edo matxismoa existitzen direnik. Ez dituzte euren ohiturak aldatuko, ez dute enpatizatuko ezta hegemoniari uko egingo. Horrela sortzen dira talkak eta badaude oraindik ere bortizkeria jasan behar dutenak.

Berez, guk hiru saio ematen ditugu, baina gero bagoaz. Horregatik saiatzen gara tentuz jokatzen edo egoera ondo neurtzen, ez baitakigu sortutako giroa mantenduko den. Ematen ditugun tresnak errealitate horretara egokituta egon behar dira.

Batzuetan esku hartzeak ere egiten dituzue, ezta?

Bai, eraso zehatzak identifikatu eta salatzen direnean eta kanpoko laguntza nahi dutenean, deitzen digute. Agian irakasleak ez dira gai kudeatzeko edo positibotzat jotzen dute kanpoko norbait agertzea. Saiatzen gara alde guztiak entzuten, puzzlea osatzen eta gertatutakoaren aitorpena dagoela bermatzen.

Konplexua da. Erasotzailea eta erasoa jasotzen duena alde batetik, eta jende ugari inguruan. Hortaz, saiatzen gara espazio propioa sortzen eta taldera eramaten. Norberak bere burua kokatzeko eta kolektiboki ere egiteko. Bakoitzak bere rola zein izan den ikustea, eta estereotipoak zein gatazka lantzen ditugu.

Eskubideei buruz hitz egiten dugu eta indarkeria ere jorratzen dugu, horrelako kasuak gertatzen baitira gizartean. Batzuetan txantxa batekin hasten da dena eta gero eraso batean bukatzen da. Komunikazio enpatikoa errazten dugu.

“Pornografia landuko dugula aipatzean, ikasleak aztoratu egiten dira”

erreportajea



Sexu-heziketa: hankartetik harago

Muturreko eskuinak zalantzan jarri berri du sexualitateari buruzko tailerrak ikastetxetan eskaintzea, baina “fake news” zaparradan, zer da egia, zer asmakizuna eta zein eskualdeko adituen iritziak? Sexua hain presente dagoen gizarte honetan -Interneten, publizitatean, hedabidetan...- ez litzateke sexu heziketa gehiago landu behar, mugatu ordez?



Testua **Aitor Aspuru Saez**

Bizitza publikoa baldintzatzeko eskuin muturraren azken ahalegina izan da "Guraso PIN" deituriko polemika. Baina zer da zehazki oztopatu nahi dutena? Izatez, sexu hezkuntza ez da hautazko gaia, baizik eta curriculumaren barruan dagoena. Hala ere, egun sexualitatea ez da, berez, ikasgaia, "zenbait ikasgaietan lantzen den zeharkako materia baizik", Aitor Fernandez de Pinedo Laudio Ikastolako irakasleak azaltzen duen moduan.

Hutsune hori betetzeko, ikastetxeek ikastaroak antolatzen dituzte jorratzeko ez soilik -ikasgaietan egiten den bezalaugalketa, baizik eta sexualitateari eragiten dizkioten bestelako esparru garrantzitsuak: sexu eta genero identitateak, aniztasuna, indarkeria, bulying-a, sare sozialak...

Diana Ibargutxi sexologoak zehazten du: "Sexu heziketaren barruan lantzen dugu ezetz esatea, baietz esatea, edertasun ereduak, emozioak, bizikidetza, harremanak, abusuen prebentzioa..."

Hortaz, agerikoa da sexualitatea genitalen funtzionamendura mugatzea errealitatea bera izugarri murriztea dela. Ibargutxik eransten duen moduan: "Sexualitatea jaiotzean hasten da. Ez dago hilerokoari edo ugalketari lotuta bakarrik. Sexualitatea gorputz osoan dago, eta azala da hari lotutako gorputz atalik handiena".

Eskubideak eta iritziak

Julene Onaindia irakasleak sexu heziketan aditua bada ere eta Guraso PINak proposatzen duen eztabaidari errotik heldu dio: "Bakoitzak bere etxekoekin nahi duena egitea ez da onargarria. Argi daukat homofobia, matxismoa, intolerantzia, gorrotoa, erasoak... ez direla errespetatu behar".

Bestalde, muineko beste aldagai bati erreparatzen diote Ibargutxik zein Onaindiak: Norena da umeak hezteko eskumena? Bien ustez, galdera modu maltzurrean eginda dago.

"Umeak ez dira objektuak, eskubide guztiak dituzten gizakiak baizik. Sexu-heziketa euren eskubidea da”

"Umeak ez dira objektuak, eskubide guztiak dituzten gizakiak dira" argitzen du Diana Ibargutxik. Zentzu horretan, Onaindiak gehitzen du: "haurrak ez dira gurasoen jabetza. Batzuek ez dute nahi umeak aske izatea eta uste dute haurrei informazioa ukatzea modurik onena dela mundurako eta bizitzarako prestatzeko". Horren aurrean, biek gogoratzen dute nazioarteko legeak eta arauak daudela; Haurren Eskubideen Nazioarteko Aldarrikapena, adibidez. Espainiar Konstituzioak ere aitortzen ditu eskubide horiek 27. artikuluan.

Bientzat giza eskubidea da sexu-heziketa, eta hori ezin da urratu.

Pornografia erreferente

Zirrara sortzen duen gai bati

buruzko informazio eskura ez badago, bestelako bideak hartzen dituzte umeek. Heldu askok badakite zer den seme-alaben galderak erantzuteko Wikipedia webgunera jotzea, baina ez dakitena da haurrek ere Internetera jotzen dutela euren jakin-mina asetzeko arlo askotan. Eta zer gertatzen da sexuari buruz eremu birtuala arakatzen dutenean? Pornografian bukatzen dutela.

Ziortza Karranza sexologoak argi dauka: "Umeek pornografia kontsumitzen dute eta berdin zaie gurasoek jartzen dituzten oztopoak. Hacker hutsak dira".

Karranzak berak bere terapietan ezagutu du fenomeno horren eragina: "Neska batek kontatu zidan mutiko batek lepotik heldu ziola topaketa erotiko batean eta galdetu zionean zergatik egiten zuen, harrituta geratu zen, uste baitzuen emakumezkoek gogoko zutela".

Diana Ibargutxik arazo bera sumatzen du sexu heziketa ez bada lantzen: "Hutsunea sortzen bada, gazteek ahal duten moduan betetzen dute, eta pornografia hor dago. Nik ez daukat ezer pornografiaren aurka, baina egia da industria *mainstream*-ak topikoak eta estereotipoak sortzen dituela eta desmuntatu beharra dagoela. Zentzu horretan, superheroien pelikulak ikusten ditugunean,inori ez zaio bururatzen pantailan ikusitakoa egitea. Pornografiarekin gauza bera azaldu behar da. *La que se avecina* telebista saioarekin antzekoa gertatzen zaigu. Gazteentzaterreferentea da eta horretara jo behar duzu. Hortik tiraka eurekin komunikatzeko eta aurreiritziak indargabetzeko aukera daukazu".

“Eskuin muturrak ikastetxe pribatuetara eramaten ditu bere seme-alabak, baina hori ez da nahikoa, antza, hezkuntza publikoa suntsitu nahi baitu. Oraindik ez dute barneratu irakasle izatea ez dela soilik bere eskumena”

Sufrimendua ekiditea

Muturreko eskuinak hainbat delirio baliatu ditu sexu heziketako ikastaroen aurka -adibidez, leporatzea homosexualitatea eta masturbazioa sustatzen dutela-, baina zein da, aipatutako helburuez gain, saio horien xedea?

Diana Ibargutxiren iritziz, helburu nagusia da sufrimendua ekiditea: "Norberak bere burua eta besteena onartzea, den moduan". Horregatik azpimarratzen du trebakuntza hori ezin dela izan hautazkoa: "Zure seme-alabak ez badituzu errespetuan hezitzen, jarrera homofoboak edo bortitzak izan ditzakete besteen seme-alabekin".

Gainera, Julene Onaindiak uste du hori ez dela bakarrik hezkuntza sistemaren ardura: "Ez dago izateko, maitatzeko, jolasteko, gozatzeko... modu bakarra, hori da nire seme-alabari erakutsi nahi dioadana".

Hezkuntza eta klasismoa

Guraso PIN deituriko polemikaren atzean bi motibazio sumatzen dituzte adituek. Alde batetik, Julene Onaindiak iritzi du: "Genero ideologiaren inposaketa ekiditeko baliabide gisa defendatzen dutenek ez diote erreparatu orain arte jaso dugun hezkuntzak badaukala ideologia: matxismoa".

Horrekin ados egonda ere, Diana Ibargutxiren susmoa da matxismoa ez ezik, klasismoa ere badagoela Guraso PINaren atzean: "Hori babesten dutenek euren seme-alabak ikastetxe pribatuetara eramaten dituzte, han eurek nahi duten hezkuntza jasoko baitute eta burbuila batean egongo baitira. Hala ere, ezin dute jasan sistema publikoan bestelako errealitatea irakastea. Muturreko eskuinak ezin du barneratu irakasle izatea ez dela jadanik soilik bere eskumena. Horregatik, nire aburuz, hau bada modu bat sistema publikoa suntsitzeko. Ez zaie balio bakarrik hezkuntza sistema publikoa bitarteko urriko herritarrekin lotzea, euren familia eredu bakarra sustatu nahi dute".

Erronka zaharrak eta berriak

Eraso eta bazterketa homofoboak zein transfoboak presente daude ikastetxeetan. Zama zahar horri gehitu behar zaizkio egungo errealitate berriak: sexu harremanak, jazarpena sare sozialen bidez edota teknologia berrien presentzia edonon. Fenomeno horiek guztiak, oro har, berriak eta ezezagunak dira helduentzat, baina ezin zaie bizkarra eman.

Ondorioz, Guraso PINa ordez, benetako ardura izan beharko litzateke etengabe berritzen eta eguneratzen den sexu-heziketa eskaintzea hezkuntza sistema osoan. Ez soilik zentzuzkoa delako, baita eskuin muturrak inposatutako agendatik ihes egiteko ere.



Ikastetxeetan sexu-hezkuntza ematearen garrantzia nabarmendu dute adituek **Aiaraldea.eus**



DIANA IBARGUTXI

SEXOLOGOA ETA PSIKOLOGOA

Umeen jokoak, joko erotikoak?

"Jakinmina sexuala" edo "umeen joko erotikoak" entzun eta, horrekiko azalpena sexu heziketa egiten dugunon partetik entzun ordez, debekua, salaketa eta mehatxua erabiltzen dute batzuek. Dena den, ez diet erru osoa botako mugimendu ultraeskuindarrei, arazoa betikoa baita: agente askok hartu dute parte sexualitatearen aurkako kanpaina honetan. Sexualitatearekin zerikusia daukan oro historikoki ez da aintzat hartu, begirada oso murritz batetik hartu delako. Sexualitatea giza dimentsioa da, emakume eta gizon guztiek dugun kualitatea, alegia, norberak bere burua adierazteko modua, bakarra eta errepikaezina dena.

Eredu heteronormatibo eta koitozentristek, familia eredu bakarrek, mito, estereotipo eta bestelako ezjakintasunek beldurra sortzen dute, eta beldurrak, aldi berean, errefusa sortzen du. Ezberdinaren beldur eta errefusa. Baina ez al gara, guztiok, ezberdinak? Jakina.

Erotika esaten dugunean, lotune, erakargarritasun, preferentziei buruz ari gara. Erotika hitzak jakinmin horren portaera edo jarrera dakar, jakinmin horren adierazpena, alegia, zuzena eta ikus daitekeena. Umeek euren gorputzak eta besteenak begiratzen eta ukitzen dituzte, horrekiko jakinmina daukatelako, antzekotasunak eta ezberdintasunak bilatu nahian. Denok egin dugu hori.

Helduon erotikak bestearekiko desira dakar bere baitan, baina umeen jakinmina eta jokoak ezin ditugu helduon begiradatik ikusi. Helduon imajinariotik atera behar ditugu umeen kontuak. Sexualitatea ez dira genitalak ezta genitalekin egiten ditugun gauzak, baizik eta nor garen. Hori deskubritzeko egiten da sexu heziketa.

Norbera ezagutu, onartu eta era positiboan adieraztea dira sexu heziketaren helburuak, besteen gorputzak, moduak eta bizipenak aniztasunetik ikusi, limiteak eta garapen sexual osasuntsua eta abusuen prebentzioa sustatuz. Horretarako umeen adinetara egokituta dauden metodologiak erabiltzen ditugu. Ezinbestekoa da sexu heziketa. Begira dezagun heziketa jasotzen dutenen ikuspuntutik.

elkarrizketa

“Haurrek heriotzari buruz hitz egin behar dute aurre egiteko”



ZIORTZA KARRANZA (Laudio, 1982) PSIKOLOGOA DA. EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEAN EGIN ZITUEN IKASKETAK ETA GERO DOLUAN ETA HERIOTZAN ADITU BILAKATU DA. BERAK AITORTZEN DUEN MODUAN, ESPARRU HORI OREKATZEKO, SEXOLOGIAN ERE BURU-BELARRI EGITEN DU LAN. EUSKADI IRRATIAN ZEIN RADIO EUSKADIN MAIZTASUNEZ AGERTZEN DA.



Testua eta argazkia
Aitor Aspuru Saez

Zergatik hasi zenituen heriotzari buruzko ikasketak?

Nire bizitzan galera oso esanguratsua izan nuen eta konturatu nintzen inork ez zuela heriotzari buruz hitz egiten. Horregatik, trebakuntza bilatzen hasi nintzen kanpoan. La Lagunako Unibertsitateko trebakuntza batekin hasi nintzen Internet bidez, eta gauza gehiago bilatu nituen gero. Ikasketak bukatu bezain laster hasi nintzen doluan zeuden pertsonekin lanean eta, handik gutxira, elkarte baten bitartez, umeekin ere jarduteari ekin nion.

Aspanovas izan zen elkarte hori, ezta?

Bai. Minbizia duten umeekin egiten dute lan. Bost urtez edo aritu nintzen haiekin. Nire lana familiekin egotea zen, prozesu horretan laguntzeko. Umeekin ere lan egiten nuen. Eurentzat ez da prozesu erraza.

Garai horretan ilea moztea erabaki nuen. Neskek are okerrago bizitzen zuten dena; ilea galtzen zuten eta esanguratsuagoa zen eurentzat mutilentzat baino. Uste nuen behar zutela emakumezko erreferente bat, pairatzen zutena ez baitzen soilik gaixotasuna, baita horren ondorioak ere.

Gurutzetako ospitalearekin akordioa sinatu zuen elkarteak, eta zaintza aringarriko unitatearekin elkarlanean hasi ginen. Nire helburua zen senideak heriotzarako prestatzea eta umeekin ere jorratzea, eurek nola ikusten zuten jakiteko.

Nire sentsazioa da gehienetan badakigula noiz hilko garen. Umeek sumatzen zuten. Kontua da familiari kostatzen zaiola horri buruz mintzatzea. Isiltasuna ematen da: familiak ez du ezer esan nahi umea ez arduratzeko, eta alderantziz.


Zein da zure lana orduan?

Erraztu beharra dago komunikazioa, agurra egiteko. Familia batzuek ez zuten nahi agurrik egitea, sufrimendu ikaragarria delako. Beti ez da agur esplizitua, baina ahalbidetu behar da haurrak bere azken desioak betetzea. Askotan egiten ziren Eurodisneyra bidaiak, edo familia bat etortzea, edo pertsonaia ospetsu baten bisita...

Berez, "El último deseo" izeneko elkartea dago eta azkenengo desirak betetzen laguntzen dute.

Jendea ez zenuen heriotzarako prestatu behar?

elkarrizketa



“Umeek hobeto onartzen dute euren unea heldu dela”

Egia da, orokorrean, senideek susmoa dutela zerbait gaizki atera daitekeela. Hortaz, aurretiazko dolua gertatzen da.

Dena den, funtsezkoa da horretarako prestatzea eta umeek heriotzari buruz hitz egin ahal izatea; izan daiteke marrazkien bidez, edo imajinatuta zer gertatzen den hil ostean.

Azken finean, heriotza ez da aipatzen eta isiltasuna dago horri buruz. Umeek aurre egin behar diotenean, uste dute desagertuko direla eta hutsunea geratuko dela.

Heriotzari buruz umeekin hitz egitea oso interesgarria da, modu oso ezberdinetan ikusten baitute. Nik galdetzen nien zer nahiko luketen gertatzea hil eta gero, eta batzuek azaltzen zuten bizitza kutxa baten antzekoa zela eta gero beste kutxa mota batera ateratzen zinela. Han beste bizitza mota egongo litzateke. Beste batzuek irudikatzen zuten txokolatezko planeta bat...

Horrelako irudiak sortzeak laguntzen zuen azkenengo uneetan hainbesteko beldurra ez izaten. Bazuten irudi bat eta bazekiten nora joan behar ziren.

Eta familiarekin zein da helburua?

Azken une horiek ahalik eta hoberen bizitzea.

Zeintzuk dira horrelako kasuetan dauden ohiko ezintasunak?

Nik uste umeek hobeto onartzen dutela euren unea heldu dela, baina nerabeei gehiago kostatzen zaie eta haserrea agertzen da.

Batzuetan ez da lortzen haiek lasai joatea. Haserre daude ez dutelako ulertzen euren anaia edo lagunak, adibidez, gelditzea.

Batzuetan lagunen bisita ez dute jaso nahi, amorrua sortu delako; adiskideak geratuko dira eta bera joango da.

Nerabeekin zailagoa da, egoeraz oso kontziente dira eta bizitzatik askatzea ez da batere erraza.

Familien artean dolua da zailena?

Bai, aurretiazko dolua, senideak askotan prestatzen baitira agur unerako. Halaber, oso garrantzitsua da gero sortzen den hutsunea. Nola bete, nola eraiki familia umea ez dagoenean, nola jarraitu aurrera eta zer gertatzen den bikotearekin berarekin. Familia desitxuratzen da.

Ez dira prozesu errazak eta, maiz, haurra hiltzen denean, euren buruei planteatzen diete nola egingo duten aurrera. Seme edo alaba bakarra bada, are gehiago, aita edo amaren rola galtzen baita eta rolak bizitzan, oro har, betirako hartzen dira. Ume bat izatea badirudi betiko erabakia dela. Norbaitek galdetzen dienean seme-alabarik duten, ez dakite zer erantzun.

Jarraitzen dute gurasoak izaten? Nire ustez gatzena aurreko dolua da, jakitea haurra hilko dela. Gure buruak erresistentzia izugarriak ditu onartzeko maite dugun pertsona batek utziko gaituela. Are gehiago ume baten kasuan, naturaltzat jotzen dugun bizitzako zikloa ez baitu betetzen.

Aipatzen duzu heriotzaren inguruan tabua edo isiltasuna dagoela. Gure kulturaren arazoa da edo unibertsala?

Zalantzarik gabe, gure kulturaren arazoa da, eta une hauetan daukagun kulturaren ikuspegia. Orain arte hurbilago genuen heriotza.

Norbait hiltzear bazegoen ingurukoak etortzen ziren baserrira, agurtzen zuten pertsona, hil ostean geratzen ziren, lutoa zegoen... Erritual pilo genituen, galdu direnak. Doluan zegoen laguna bazekiten nola tratatu eta beltzez jantzita zegoena zer pairatzen ari zen bazekiten.

Egun daukagun azkartasunarekin, kapitalismoak eramaten gaitu "gauza itsusiak" baztertzera. Heriotza ez dugu gizartean sartu nahi. Dolua ez da produktiboa eta gizarte honek kide produktiboak nahi ditu. Ematen dituzten baja egunak oso gutxi dira, bi edo lau. Dolua garatzeko hilabeteak behar dira.

Adibidez, inguruan dauden pertsonek zabaltzen dituzten mezuak maiz dira "animo, orain egin behar duzuna ateratzea da". Nekez entzuten dugu pertsona horrek duena esateko, eta zailtasunez onartzen dugu galera izan duen lagun batek behar duena gaizki egotea dela.

Badirudi gauza positiboak besterik ez ditugula ondo ikusten eta ez dugula nahi norbait doluan egotea, horrek erakusten baitigu heriotza gure aurrean dagoela.

“Umeek pornoa ikusten dute oso txikitatik eta norbaitek esan behar die hori ez dela erotika eredu bakarra”

Orain zure kabuz zaude lanean eta bestelako esparruan eragiten duzu, sexualitateetan. Umeek nola ikusten dute sexualitatea?

Pornoa hor dago eta oso txikitatik ikusten dute. Gurasoek sakelakoa ematen diete eta uste dute kontrola dutela, baina gaur egungo umeak hacker hutsak dira. Badakite nola saihestu iragazkiak eta zein orrialdetan sartu.

Lana da pornoan ikusten dituzten irudiak eta topaketa erotiko mota horiek desmuntatzea. Txarrena da sinisten dutela ikusten duten hori, inork ez badie esaten hori ez dela egia.

Gazte batek kontatu zidan behin topaketa erotiko batean mutilak lepotik heldu zuela eta neskak galdetu ziola ea zer egiten ari zen. Mutila harritu zen, uste baitzuen emakumezkoek hori gogoko dutela.

Norbaitek azaldu behar die pornoan ikusten diren irudiak ezin direla orokortu eta norberak bere erotika sortu behar duela, presioa sortzen baita.

Bestalde, gorputzekin konplexu ugari dituzte, gero eta gehiago eta gero eta gazteago. Pornoan agertzen diren gorputzak eredu zehatzak dira, eta alderatzean, sumatzen dute ez datozela bat.

Are gehiago genitalekin; aluekin, esaterako. Umeek ez dute euren alua ikusten pornoan agertzen den moduan eta gaizki pasatzen dute horren ondorioz.

Gainera, bestelako ereduak bilatzean, askotan, eskola liburuetan agertzen direnak berdinak dira. Ereduak gero eta itxiagoak direnean, gero eta sufrimendu

Elkarrizketa osoa Aiaraldea.eus atarian

AIARALDEA GAUR

agenda

2020/02/05
2020/02/18



Barren.eus

Euskal Mendizaletasunaren Gala Amurrion otsailaren 14an

Otsailaren 14an 19:00etatik aurrera euskal mendizaletasunak protagonismo osoa hartuko du Amurrio Antzokian. Izan ere, Euskal Mendizaletasunaren XXIV. Gala ospatuko dute.

Hitzordu horretan aitortuko ditu Euskal Mendizale Federazioak kirolari onenak zenbait esparrutan: orientazioan, eskaladan... Hurrengo asteartetik aurrera jakinaraziko dituzte irabazleak. Axier Vivanco Amurrio Trail Taldeko kideak azaldu duenez, federazioak bere gain hartu du sari banaketa, baina amurrioarrek galaren gainerako elementuak antolatuko dituzte: musika taldea eramango dute oholtzara, besteak beste. Vivancok nabarmendu du federazioaren aldizkariak ere sariak emango dituela.

Amurrio Trail Taldeko bozeramaileak iragarri duenez, Amurrio Antzokia betetzea da helburua. Hasteko, gonbidatuak 200 inguru izango dira. Horrez gain, sarrerak erosteko aukera ere eskainiko dute otsailaren 7ra arte: "140 sarrera inguru salduko dira Turismo Bulegoan, eta bi mota egongo dira. Gala ikusteko bakarrik 4 euro ordaindu beharko dira. Ekitaldiaren ostean afaria egingo da Abiaga Jatetxean".

Physis Versus Nomos
Faktorian, otsailaren 15ean



Arrastiak Faktorian zikloaren emanaldi berri bat programatu du Aiaraldea Ekintzen Faktoriak. Oraingo honetan Physis Versus Nomos taldea arituko da oholtzan, *Arraro nioenean* lanarekin. Emanaldia otsailaren 15ean izango da, larunbata, eta 20:00etan hasiko da, Faktorian (Errotari kalea 4-8, Laudio). Ohi bezala, afaltzeko tokiko elikagai eta edariak eskainiko dira (ardo, zuku eta garagardo artisauak). Kontzertuaren sarrera 5 eurokoa izango da Faktoriako bazkide ez direnentzat, eta bazkideentzat aldiz, 3 eurokoa.

Basaratustea ospatuko dute *otsailaren 16an Laudion*

Urtero bezala, Basaratustea ospatuko dute Laudion otsailaren 16an, igandea. Eguerdiko hamabietan jarri dute zita, Larrazabal auzoko San Joan Astobitzako baselizan. Los Arlotes taldeko kideek hainbat abesti kantatuko dituzte giroa berotzeko, eta jarraian ekingo diote txitxiburruntzia prestatzeari. Parte hartzaile bakoitzak bere haragi propioa eraman beharko du, baina suak antolakuntzak prestatuko ditu.

Bazkalordura arte luzatuko da giroa, Arloteekin eta Etxebarria txikitilariekin. Laudioko Udalak antolatu du ekimena.



Katixa Agirre Orozkon *egongo da, tertulian*

Katixa Agirrek Orozko bisitatuko du datorren otsailaren 10ean bertako Kultur Etxean arratsaldeko zazpietan egingo den kafe-tertulian parte hartzeko. Bere azken liburuaren inguruan (*Amek ez dute*) arituko da idazle arabarra, bertaratzen den ororekin.



Alea.eus

MUSIKA

02.08 Larunbata
22:00 Amurrio
GARILAK 26
Burubio elkartea

02.13 Osteguna
20:30 Amurrio
CRISIX + SANNGRE
Burubio elkartea

02.15 Larunbata
20:00 Laudio
PHYSIS VERSUS NOMOS
Faktoria

HITZALDIAK


02.05 Asteazkena
18:00 Amurrio
JOKO ARETOAK
Igor Meltxor ikerlariak eskainiko du hitzaldia
Kultur etxea

02.06 Osteguna
18:30 Urduña
AGROEKOLOGIA FOROA: FRUTAGINTZA
Amaitzean, Urduñako frutarbolen sagarren dastaketa egingo da. Euskal Herriko Hazien sareko kideak izango dira hizlariak
Alondegia

02.14 Ostirala
19:00 Orozko
SOLASALDIA KATIXA AGIRREREKIN
Bere azken liburuaren inguruan, *Amek ez dute*, arituko da idazle arabarra
Kultura etxea

ANTZERKIA

02.08 Larunbata
20:00 AMURRIO
"EPA!"
Prezioa: 10 (8 bazkideentzat)
Amurrio Antzokia



02.15 Larunbata
6:00 ARRANKUDIAGA-ZOLLO
ESKI IRTEERA
Informazio gehiago 638513735 telefonoan, matxinkorta@gmail.com helbidean edo Arrankudiagako Ekilore dendan eskuratu ahalko da.
Arrankudiagako plaza

02.09 Igandea
9:00 URDUÑA
MENDI IBILALDIA
Lekamaña, Lezama eta Txibiartetik igaroko dira
Foru plaza

HAURRENTZAKO JARDUERAK

02.05 Asteazkena
17:30 ARTZINIEGA
IPUIN TXIKIAK:
"León de biblioteca"
Udal Liburutegia

02.08 Larunbata
17:30 LAUDIO
SORGIN ZAPATUAK
"Natura gaiak benetako lehengaiak" eskulan saioa egingo da. Ondoren askaria eta agur jolasa egingo dira
Frontoi etxea

02.11 Asteartea
11:00 AIARA
ETXAURREN KROSA
Etxaurren Ikastola

02.11 Asteartea
17:30 ARTZINIEGA
IPUIN TXIKIAK:
"Bubu eta Naaba lehoia"
Udal Liburutegia

02.12 Asteazkena
17:30 ARTZINIEGA
IPUIN TXIKIAK:
"Bubu eta Naaba lehoia"
Udal Liburutegia

02.15 Larunbata
17:30 LAUDIO
SORGIN ZAPATUAK
Maite Franko ipuin-kontalariak "Panpinak Aitorrentzat" ipuina kontatuko du
Frontoi etxea



Joko aretoak izango dituzte hizpide bihar

Amurrioko Kultur Etxean

Joko aretoei buruzko hitzaldia eskainiko du bihar -otsailak 5- Igor Meltxor ikerlariak Amurrioko Kultur Etxean, 18:00etan. Aiaraldeko Ernai gazte antolakundeak prestatu du ekimena.

Kartelera



LAUDIOALDE ARETOA

Los Miserables

OTSAILAK 8

LARUNBATA (3 euro)

17:30 / 20:00



DONIBANE ARETOA

Jugando con fuego

OTSAILAK 9

IGANDEA (3,5 / 4,5 euro)

16:30



AMURRIO ANTZOKIA

Turuleka oiloa

OTSAILAK 9

IGANDEA (3,75 euro)

17:30




DONIBANE ARETOA

Aguas oscuras

OTSAILAK 9

IGANDEA (3,5 / 4,5 euro)

19:00



AMURRIO ANTZOKIA

1917

OTSAILAK 9, 10

IGANDEA ETA ASTELEHENA (3,75 / 5 euro)

19:30 / 20:00




LAUDIOALDE ARETOA

Antes del anochecer

OTSAILAK 15

LARUNBATA (3 euro)

17:30 / 20:00



DONIBANE ARETOA

Judy

OTSAILAK 16

IGANDEA (3,5 / 4,5 euro)

19:00



DONIBANE ARETOA

Operación Panda

OTSAILAK 16

IGANDEA (3,5 / 4,5 euro)

16:30



TAILERRAK

02.10 Astelehena
18:00 OKONDO
HAZTE PERTSONALAREN TAILERRA
Emakumeen gela

02.10 Astelehena
17:00 ARESPALDITZA
"JENDAURREAN HITZ EGITEKO ESTRATEGIAK"
Emakumeen gela

02.14 Ostirala
18:00-21:00 OROZKO
GENEROTIK ERE ATERA DAITEKE, MAITASUN ERROMANTIKOARI BURUZKO BEGIDARA MATERIALISTA
Josebe Iturriozen eskutik
Kultura etxea

02.15 Larunbata
10:30-14:00 OROZKO
GENEROTIK ERE ATERA DAITEKE, MAITASUN ERROMANTIKOARI BURUZKO BEGIDARA MATERIALISTA
Josebe Iturriozen eskutik
Kultura etxea



Irutxuloko Hitza

02.16 Igandea
11:00 OROZKO
FITNESS SWING
Otsailaren 8a baino lehen eman behar da izena elkartasunarenkabia@gmail.com helbidean
Kultura etxea

KIROLA

02.09 Igandea
11:00 AIARA
ETXAURREN KROSA
Etxaurren Ikastola

BESTELAKOAK

02.06 Osteguna
19:00 LAUDIO
DANTZALDIA
60 urtetik gorakoentzat
Kasinoa

02.06 Osteguna
AMURRIO
KINTOEN JAIA
20:00 // Orkresta elektrotxaranga
23:30 // Fan&Go erromeira
2:00 // DJ Masa
Juan Urrutia plaza

02.09 Igandea
18:00 AMURRIO
JAI HERRIKOIEN ALDEKO BATZORDEAREN BILERA
Gaztetxea

02.14 Ostirala
19:00 AMURRIO
EUSKAL MENDIZALETASUNAREN GALA
Amurrio Antzokia

02.17 Astelehena
LAUDIO
KANPORAMARTXO: BASARATUSTEA
12:00 // Guzuraretx neurtzea eta Los Arlotesen kantaldia
12:30 // Txitxiburruntzia eta jai giroa
San Joan Astobitza (Larrazabal)

02.17 Astelehena
19:30 LAUDIO
IRAKURKETA KLUBA
Txani Rodriguez idazleak gidatuko du saioa. Parte hartzeko aldez aurretik izena ematea beharrezkoa da udal liburutegian
Udal liburutegia

02.18 Asteartea
17:30 ARTZINIEGA
IPUIN TXIKIAK:
"Handia izan nahi dut"
Udal Liburutegia

02.19 Asteazkena
17:30 ARTZINIEGA
IPUIN TXIKIAK:
"Handia izan nahi dut"
Udal Liburutegia

INFO +
aiaraldea.eus

elkarrizketa

“Edoskitzean ez laguntzea ere bada indarkeria matxista mota bat”



ESTI GARMENDIA SANTAMARIA (Laudio, 1976) LAUDIOKO EDOSKITZE TALDEKO KIDEA DA. DUELA BOST URTE SORTU ZEN TALDEA, ETA HILERO BILTZEN DIRA LAUDIOKO KULTUR ETXEAN, EMAKUMEEN ARTEKO ELKAR-LAGUNTZA SUSTATZEKO.



Testua eta argazkia
Txabi Alvarado Bañares

Nolatan sortu zenuten edoskitze taldea?

Edoskitzean batzuetan zailtasunak agertzen dira. Erditze ondorengo momentuak oso bereziak dira, batzuetan zaila ere izan daiteke; ebakuntzen ondorioz, besteak beste.

Laudion ez zegoen egoera horiei aurre egiteko modurik, Bilbora joan behar izaten ginen. Ni erditu ostean ezin nintzen etxetik apenas mugitu. Horregatik, ama izan ondoren, trebakuntza jasotzen hasi nintzen: Bilboko Maya zentroan esnealdi aholkularitza ikasi nuen. Bertan Nuestro Regazo elkartea sortu zuten, eta bide beretik, Laudion taldea sortzea erabaki genuen. Horrela hasi ginen duela 5 urte.

Arazo pertsonaletatik abiatu zenuten proiektua. Zerk motibatu zaituzte jarraitzera?

Beste emakumeak laguntzeak. Guri gertatu zaiguna beste askori pasatzen zaie, eta horrek eman dit niri motibazioa. Minengatik oso erraza da edoskitzeari uztea, eta garrantzitsua da momentu horietan aldamenean norbait izatea. Hasieran ostiralero elkartzen ginen, baina gero hileko lehen larunbatean batzea erabaki genuen; zalantzak ez zirelako horrenbeste.

Bilerak irekiak dira: batzuetan emakume berdinak agertzen dira, babestuak sentitzen direlako. Beste batzuetan, kontsulta puntualak egiteko etortzen dira. Orain, hiru aholkulari gaude, eta telefono bidezko kontsulta edo arreta ere eskaintzen dugu; behar izanez gero, pertsona horren etxera ere joaten gara, boluntarioki.

Nolakoa izan da zure esperientzia?

Nik 5 urtez eman dut titia ama gisa, eta gainera edoskitzeari buruzko ikasketak egin ditut. Beraz, ama berriak baino adituagoa naiz. Osasun zentroetan mezuak argi dituzte, baina ez dakite nola lagundu. Nik ez diot inori esaten zer egin behar duen, beharrak entzuten ditut eta laguntzen saiatzen naiz.

Eskualdeko beste herrietan ere aritzen zarete, ezta?

Laudion ez ezik, Amurrion, Okondon eta Orozkon ere izan gara. Amurriora dagoeneko bost edo sei aldiz joan gara. Bistan denez, zabaltzen dagoen ekimena da, eta beharra dagoela azaleratzen du.

Zertan lagun dezake aholkularitzak edoskitzean?

Postura begiratzen, adibidez. Gu ama gara, baina



“Edoskitzea emakumeona da, eta hori berreskuratu behar dugu”

formakuntza jaso dugu. Ez dakigu osasunaz askorik, baina emagin batzuk baino gehiago dakigu edoskitzeari buruzko ikastaroen ondorioz. Pediatrekin aurkitzean, euren trebakuntzetan edoskitzeari buruzko saio gutxi jaso izan dituztela esan digute, eta batik bat, esnearen konposaketari buruzkoak izan direla. Alegia, emakumeak titia ematen ez dituzte ikusi askok; euren iruditegian ez dute irudi hori. Ondorioz, ez dakite nola lagundu.

Niretzat, onena titia ematea da; hori da normalena gure artean. Bularra ez baliatzea erabakitzen baduzu (guztiz onargarria da hori ere) biberoiaren aukera duzu. Edoskitzea onena da ama eta haurrarentzat, baina zailtasunak agertzean ez dakigu nola lagundu. Horregatik sentitzen gara emakumeak bakarrik, eta frustrazioa zein errua agertzen dira. Fase horretan, emakumeen arteko laguntza garrantzitsua da, ez psikologikoki bakarrik, postura eta gomendio zuzenak jarraitzeko ere bai. Gu ez gaude osasun publikoaren funtzioa betetzen, edoskitzea emakumeona da, eta hori berreskuratu behar dugu.

Jendartean edoskitzearekiko pertzepzioa aldatu al da azken bost urteetan?

Ez, baina ia beti egoera antzekoak errepikatzen dira: zailtasunen aurrean laguntza ez jasotzea, familia eta mediku zein erizainen gomendio kontraesankorrekin topatzea, errua, mina... Nire ustez, hori ere indarkeria

“Nola tratatuko genuke gizon bat ebakuntza eduki berri eta haur jaioberria eskutan? Oso ezberdin, seguruenik”

matxista da. Erditzearen osteko aldia guztion artean zaindu behar dugu, eta hori da guk eskaintzen duguna talde zein kontsulta pertsonaletan.

Edoskitzea amatasunarekiko irudiari oso lotuta dago. Emakumeak erietxetik ebakuntza egin berri batekin ateratzen gara batzuetan, haur jaio berria eskutan, eta 4-5 egunetan etxera goaz. Gure bizitzako aldirik neketsuenak biziko ditugu: lo gabeko gauak eta abar. Horrelakoetan ebakuntza ahazten dugu, ez gara inor, eta jendarteak ahaztu egiten gaitu.

Hori gizonezkoei ez zaie gertatzen. Nola tratatuko genuke gizon bat ebakuntza eduki berri eta haur jaioberria eskutan? Oso ezberdin, seguruenik. Emakumeei lotutako kontua denez, gizarteari ez zaio axola.

Zer nolako jarrerak identifikatu dituzue saioetan?

Jende ezezagunak askotan esaten digu kaletik gure umea gose dela... Horrenbeste mezu jasotzen ditugu, eta hain momentu berezia da guretzat; ezen taldean negarrez edota barrez bukatu baitugu! Zalantza asko ateratzen dira beti taldean: nola egiten duzu hau? Eta beste hori? Pediatrak haurra sehaskan uzteko esaten du, eta gu ez gara gai batzuetan...

Ama gisa erru asko hartzen dugu gure gain, horregatik ohartu ginen edoskitzeak espazio bat behar zuela, eta hazkuntza bilerak beharrezkoak zirela. Horregatik, gure asmoa hilero biltzen jarraitzea da. Familien artean oso ezaguna da dinamika, hilabeteko lehen larunbatean 11:00etan Laudioko Kultura Etxean elkartzen garela denek dakite; nahiz eta kontsulta presentzialak ere izan.

kultura



“Umoregilea biluztu egiten da jendaurrean”

KAITIN ALLENDE ZALDUNBIDEk (Bilbo, 1972) BAKARRIZKETA MUNDURA EGIN DU JAUZI. OKONDON AURKEZTU ZUEN BERE LEHEN LANA.



Testua **Txabi Alvarado Bañares**

Gazteleraz eta herrian aurkeztuko duzu zure lehen bakarrizketa. Urduri?

Bai. Lehen aldia da Okondon aritzen naizena, monologoa egiten dudan bigarren aldia izango da. Lehenbizikoa oso ondo atera zen.

Emanaldia beti da bera, ala moldatu egiten duzu?

Bakarrizketaren moldaketa da oraingoa. *Artistak eta kazetariak 1.0* da ikuskizuna. Hala ere, herrira egokitu dut saioa, moldaketa batzuk eginda.

Kazetaria naizenez, irrati esataria, nire egunerokotasunean egin beharreko peripezia eta abenturak kontatzen ditut. "Artistak eta kazetariak 1.0" obran kazetariak ere artistak garela aldarrikatzera nator, malabareak egin behar izaten ditugu gure lanbidean askotan eta.

Kazetaritza eta irratigintza izan dira zure inspirazio iturri, beraz?

Bai. Sorkuntza prozesurako balio izan dit, gidoia idazteko. Hortik harago, pilatutako esperientziak ez du izan zerikusirik taulara igotzeko orduan. Mikrofonoa tartean dagoela da duten lotura bakarra. Ikasi beharra dago bakarrizketak gidatzeko.

Ni ikastaro batean egon izan naiz. Jorge Loza irakaslearekin aritu naiz ni astero Gasteizen. Ikastaroa egin dugun guztiok bakarrizketa txikiak prestatu ditugu, eta ikasturte amaierako emanaldia eskainiko dugu Gasteizko Baratza aretoan. Ez da batere erraza monologoak egitea, komedian aritzea eta barrea eragitea.

Gidoiak ala taularatzeak, zer du garrantzia gehiago?

Biek, oreka egon behar da bien artean. Gidoi on batekin taula gainean ez badakizu egoten... biak dira garrantzitsuak.

Zerk bultzatu zaitu bakarrizketa mundura?

Nire bizitzan zehar askotan esan didate bakarrizketak egin beharko nituzkela, gertukoak asko tematu dira. Azkenean, lanbide bakoitzak bere errespetua duenez (nik pertsona bakoitza miresten dut edozer egiten duela ere) bakarrizketak egiteko prestakuntza jasotzea erabaki nuen. Lagun artean zirikatzen dabilena izatea edo oholtzara bakarrik igotzen dena barre eragitera, ez da berdina.

Emakumezko monologistak gutxi zarete, eta euskaraz zabiltzatenak are... Zeintzuk dira zure erreferenteak?

Euskaraz apenas daude, baina oso gustuko ditut esate baterako Mirari Martiarena eta Idoia Torregarai. Alabaina, biek egiten dute batera emanaldia eta 2 piezak nahastu behar dituzte. Erreferenteak bilatzeko gaztelerara jo behar izan dut, nik gailurraren puntan beti izan dut Eva Hache. Orain, sortu berri den beste izar bat dago: Susi Caramelo, tamainan gara berdinak bakarrik, biak oso baxuak baikara. Euskarazko monologista emakume oso gutxi gaude, eta nire adinekoak ia... ez dakit baten bat egongo den!

Eskualdean ez dago umoregilerik, nik dakidala...

Akaso egongo da, baina oraindik ez da atera! Euskarazko erreferenteak behar dira, berdin da margolaria, abeslaria, hizlaria edo monologista izan! Apustu hori egin behar da, nik argi dut: nire debuta euskaraz izan zen, eta nire lan guztiak euskarazkoak izango dira. Okondokoa salbuespena izango da, herrian eskatu zidaten gazteleraz egiteko... Badirudi Burgosen bizi garela, hainbat alditan sentitzen zara arrotz hemen.

Ni Arrasatekoa naiz, eta euskaraz izateagatik emanaldira etortzen ez direnei esan nahiko nieke euskaraz tutik ulertzen ez zutenak barre algarengatik negarrez bukatu zutela. Beste emakume batek, ikuskizuna bukatzean, ingeleraz "you are wonderfull" esan zidan; alegia, hizkuntza ez da muga.

Nik asko transmititzen dut nire keinu edo mugimenduekin, eta horrek komunikazioari plusa ematen dio.

Umorea egiteak badu mugarik?

Ez. Beste kontu bat da bati grazia egin diezaiokeela, eta beste batzuei ez. Niretzat gai guztiak landu daitezke, publikoarengana iristeko mila modu dituzu, moduan asmatu behar da. Umoregilea biluztu egiten da jendaurrean, beraz (kasu honetan nitaz) barre egin dezakezu; beraz, zergatik alderantziz ez? Barre eragitea oso zaila da, mugak jartzen hasiz gero...

Barreak eraldatzeko ere balio du, zure ustez?

Bai. Sekulako astokeria barrezka esaten baduzu, ezberdina da erreakzioa. Hor dago koska, minik ez eragiteko eta barrea sortzeko esateko moduan. Ez dago formula miragarririk, denborarekin ikasi behar den zerbait da. Ni hasiberria naiz, baina ahaleginduko naiz jartzen dizkiguten muga horiek gainditzen. Ez dizkigute hegalak moztuko, hasi baino ez gara egin.

Interes handia sortu du Juan Ibarrola militarrari buruzko biografiaren aurkezpenak



Lamuza parkeko Kasinoan egin zuten aurkezpena. **Aiaraldea.eus**

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Iragan ostiral arratsaldean aurkeztu zuten Juan Ibarrolaren biografia Laudioko Lamuza parkeko kasinoan. Ekitaldia oso arrakastatsua izan zen, eta antolatzaileek positiboki baloratu zuten. "Kasinoa bete beteta egon zen. Pertsona ugari zutik eta sarrerako atean zeuden, barruan jende gehiago sartzen ez zelako", azaldu du Laudio Memoriako kidea den Jon Muñozek.

Memoria historikoaren aldeko talde horrek argitaratu du liburua, hainbat urtetako ikerketa lan sakona egin ostean. Liburuaren 150 ale eraman zituzten aurkezpenera, eta guztiak saltzea lortu zuten. Hala ere, beste 150 dituzte gordeta, eta herriko hainbat tokitan jarriko dituzte salgai: kioskoetan, estankoetan eta Erroke Deunaren anaidiaren egoitzan.

Xabier Ramos argazkilari okondoarrak erakusketa jarri du Txaparro tabernan



Sei argazkiko erakusketa atondu du Ramosek. **Xabier Ramos**

Testua
Julen Solaun Martinez

Xabier Ramos okondoarrak sei argazkiko erakusketa aurkeztu du bere herriko Txaparro tabernan. "Irudi gutxi dira, baina, nire ustez, kalitate onekoak dira", nabarmendu du argazkilariak. Aiaraldeko inguru naturalak eta animaliak erretratatzen ditu irudietan. Hori da, hain zuzen, Ramosek gehien gustuko duen argazkigintza mota.

Erakusketaren ideia tabernako jabeari egindako proposamen bat bezala hasi zen. Baina, arrakasta izatekotan, Kultur Etxean "zerbait handiagoa" jartzeko asmoa du ere, "herriko jaietarako edo".

Laudioko "herri aratusteak" antolatzeko laguntza bila ari da Sorginlarren taldea

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Laudioko "herri aratusteak" antolatzeko lanetan murgilduta daude Sorginlarren elkarte mitologikoko kideak. Hainbat ekintza antolatu nahi dituzte otsailaren 21 eta 22rako. "Ostiralean kalejira mitologikoa egingo dugu arratsaldeko seietan Lamuza parketik abiatuta", aurreratu dute.

Horretarako, laguntzaile bila ari dira elkarteko kideak: "Musikarien eta buruhandi edo momotxorroren bat ateratzeko prest dagoen jendearen bila gaude". Gauzak hala, "pertsona orori" luzatu diote parte hartzeko gonbita. Interesdunek mezu bat bidali beharko dute sorginlarren@gmail.com helbidera eta taldeko kideak arduratuko dira eurekin harremanetan jartzeaz.

Otsailaren 22an, aldiz, hainbat tailer eskainiko dituzte Herriko plazan. "Sukaldaritza eta graffiti saioak eta umeentzako ohiko tailerrak egongo dira", zehaztu dute. Arratsaldean, aldiz, kalejira egingo dute, inauterietako desfilera bertaratzeko, bertan parte hartuko baitute Sorginlarreneko kideek.

Hiru urteko ibilbidea

Sorginlarren mitologia elkarteko kideek azaldu dute hiru urte daramatzatela herri aratusteak antolatzeko saiakerak egiten. "Ohiko eskema komertzialetik" aldendu nahi dute horretarako, "antzinako ohiturei" erreparatzeko.



kultura

Nahas Jolas 2 ikuskizuna taularatu zuten Aiara Dantza Taldeko kideek larunbat arratsaldean Amurrio Antzokian. Bi emanaldi eskaini zituzten, bata bestearen jarraian, eta bietarako sarrerak agortu ziren. Ikusmira handia sortu zuen ikuskizunak, eta ez zen gutxiagorako: 150 dantzari baino gehiago aritu ziren oholtzan ordu eta laurden inguruko ikuskizuna eskaintzen.

Dantza koktel freskagarria Amurrio Antzokian

DINAMIKOTASUNA NAGUSI

Oso emanaldi dinamikoa izan zen. Abesti eta dantzari guztiak jarraian entzun eta ikusi ahal izan zituzten bertaratutakoek, etenik gabe apenas.







IKUSMIRA HANDIA

Ikusmira handia sortu zuen emanaldiak. Amurrio Antzokia erabat bete zen bi saioetan. Sarrera ia guztiak egun batzuk lehenago agortu ziren.





NAHASKETA AUSARTAK

Izenburuak iradokitzen duen moduan, nahasketa izan zen dantza guztiak lotu zituen haria. Zentzu horretan, nahiko ausart jokatu zuten Aiara Dantza Taldeko kideek, euskal dantzen ohiko pausoak ezohiko pop eta elektronika doinuekin nahastu baitzituzten, besteak beste.









JANTZIAK

Janzkera apurtzaileak ere taularatu zituzten, euskal jantzietako gonak jaka beltzekin konbinatuta, adibidez.











Argazki guztiak Aiaraldea.eus atarian daude ikusgai.

kultura

Herritar ugari atera dira kalera Agate Deuna dela eta, makilen erritmora kalez kale eta auzoz auzo abesteko prest. Eskualdeko herri gehienetan aritu dira kantuan, taldetan banatuta. Kintoak ere atera dira kantuan. Urduñakoak asteburuan egon ziren hiriko kaleetan eta inguruko herrietan kantatzen. Amurriokoak, aldiz, atzo egin zuten kalejira.

Agate Deunak herritarren eta makilen hotsak atera ditu kalera

HAINBAT HERRITAN

Eskualdeko herri gehienetan aritu dira kantuan: Arrankudiagan, Laudion, Artziniegan, Amurrion, Orozkon eta Urduñan.









kultura







AURTENGO KINTOAK ERE

Urduña eta Amurrioko kintoak ere atera dira kantatzera egunotan, antolatuko dituzten jaietarako dirua biltzeko asmoarekin.







Argazki guztiak Aiaraldea.eus atarian daude ikusgai.

kirola

“Futbolean gertatzen diren irain arrazisten kontra ezer esaten ez duen jendea konplizea da”



THAYLOR LUBANZADIO (Laudio, 1994) FUTBOLARI PROFESIONALA DA ETA, GAZTEA IZAN ARREN, IBILBIDE LUZEA BETE DU JADANIK: CELTA B EDO EIBAR TALDEETAN ARITU DA, ESATERAKO. PORTUGALETE KLUBAK FITXATU DU DUELA GUTXI ETA AIARALDEA HEDABIDEAREKIN MINTZATU DA BERE ESPERIENTZIEI BURUZ, ARRAZISMOAK ZIPRIZTINDU BAITU BERE KIROL JARDUERA.



Testua eta argazkia
Aitor Aspuru Saez

Portugaletek fitxatu zaitu, hiru hilabetez hausnarketarako etenaldia egin eta gero.

Bai, pentsatzeko behar nuen. Udan ez nuen eskaintza bereziki interesgarririk jaso eta aukera ona izan da hausnartzeko.

Hiru hilabete hauetan luze hausnartu dut; zer egin dudan, zein izango den etorkizuna... Eta, oraindik, egia esan, ez daukat oso argi. Denbora gehiago egongo nintzateke pentsatzen, baina futbol jokalari batentzat denbora oso azkar igarotzen da.

Asko pentsatu dut, baina bakarrik futbolari dagokionez. Gainerako esparruetan argi daukat. Kontzentratuta egon behar naiz familiarekin eta bikotearekin.

Egindakoa oso ondo baloratu dut. 17 urte nituenetik orain arte ez daukat kexarik. Mutil askok jokatzen dute futbolean eta guztiak ezin dira profesionalak izan.

Ni pribilegiatua izan naiz, 1. mailako taldeekin aritu naiz, eta dirua irabazi dut. Izugarria izan da, baina hori lortzeko lan handia dago atzetik, baita sakrifizioak ere: familiatik urrun egotea, lagunekin denbora ez igarotzea, jaietan kanpoan egotea...

Zuk esan duzun moduan, futbolak esperientzia onak eman dizkizu, baina baita txarrak ere.

Bai, partida batean jokalari batek irain arrazistak bota zizkidan eta epailea hurbil zegoen. Nik epaileari galdetu nion ea zerbait egin behar ote zuen eta berak ez zuela ezer entzun erantzun zidan, nahiz eta alboan egon.

Partida bukatu ostean jende pilo zegoen, galdu genuen eta irain arrazisten aurka ez zuela ezer egin esan nion berriro. Horrek gatazka piztu zuen guztion artean, bultzaka hasi ginen eta epaileak aktan jaso zuen borrokatu nintzela. Horregatik zigortu ninduten, eta iraindu ninduenak ez zuen zigorrik jaso.

Hala ere jokalari horrek gero barkamena eskatu zizun.

Berak eta bere taldeko presidenteak eskatu nahi zidaten barkamena, baina nik ez nuen onartu. Irain horiek ez dira egin behar, eta kito.

Nola bizi izan dituzu Iñaki Williamsen eta Abadiñoko jokalariaren aurkako irain arrazistak azken astean?

Iñaki Williamsen kasua nahiko gogorra izan zen.



“Eskuin muturra sartzen ari da futbolean eta horrek kirola kaltetuko du”

Larritzeko modukoa da Europako puntako txapelketetan gero eta gehiago gertatzen ari dela ikustea.

Iñakiren gertaeran gogaikarria izan zen, bereziki, jende ugarik iraindu zuela. Futbol zelaiko ertz horretatik igaro zenean jende pilok iraindu zuen Williams. Dena den, okerrena da inguruan zegoen jendeak ezer ez egitea. Hori da arazo nagusia.

Jendeak ezin du ez entzunarena egin, bestela konplize bilakatzen dira. Albokoei zerbait esan behar zaie horrelako kasuetan.

Futbol zelaian dauden profesionalek, jokatzen zein aulkian, neurriren bat hartu behar dute, Espaynolekoek zein Athleticekoek. Horrek amorrua sortzen dit, horrelako egoeretan esku hartu behar dutenek ezer ez egitea. Hori arrazismoa laguntzea da.

Hala eta guztiz ere, ondo egon da kontzientziazioa landu delako, jende horrek egin duena txarto dagoela adierazteko. Hedabideetan asko agertu eta erakutsi da. Jendeak aukera izan du ikusteko eta hausnartzeko. Hori ondo dago beti. Ume ugariri heldu zaie mezua, eta badakite txarto dagoela. Larritasunaren barruan, hori izan da elementu positiboa.

Abadiñoko jokalariaren kasuan, albisteetan ikusi nuen bere azalaren koloreagatik irainak jaso zituela. Futbolariak pertsona batek irribarre egitea eskatu ziola azaldu zuen. Twitterren bidez eskatu nion jendeari berarekin harremanetan jartzeko modua, eta sare sozialaren boterea handia da; bi minututan banuen berarekin hitz egiteko aukera. Ni baino gazteagoa da eta nire babesa adierazi nion, une hauetan bakarrik ez sentitzeko. Nola sentitzen ari zen banekien eta nire asmoa laguntzea zen.

Izan ere, oso gogorra da zer gertatu den azaltzea, eta duen oihartzuna. Nik hori banekien, egoera berean egon nintzelako. Hitz egin nuen berarekin, aipatu nion zein gogorra den kirola, futbola, inguruan dauden astapotroak, eta luze mintzatu ginen. Babestu nuen eta laguntzeko prest nagoela esan nion. Adibidez, asteazkenean elkarrizketa egin behar genuen Radio Euskadin, baina gazteak erabaki zuen ez egitea, presio handia izaten ari baita berarentzat. Egoerak apur bat gainditu du. Jende pilok deitu du eta horrek urduritu du.

Beste egun batean egingo dugu elkarrizketa, denbora igarotzen denean, jendea ahazten joango baita eta bera erosoago egongo delako.

Horrelako irainak arruntak dira?

Niri, behintzat, ez zait berriro gertatu. Txikitan gertatu zitzaidan, eta nire taldekide batzuei ere.

Dena den, bai hemen eta bai atzerrian kasu asko daudela ikusten ari naiz. Uste dut politika eta futbola estuki lotuta daudela. Eskuin muturreko alderdi faxistak sartzen ari dira. Jende hori sartzen ari da.

Adibidez, duela gutxi Santiago Abascal ikusi nuen Real Madrileko futbol estadioko VIP gunean. Nola da hori posible? Nik ezin dut ikusi. Horrek gehiago kaltetuko du futbola.

Gaztea zara oraindik, baina futbolaren munduan esperientzia luzea duzu, ezta?

Bai, nahiz eta 25 urte izan, uste dut esperientzia asko dudala. Talde ugaritan ibili naiz eta eskarmentu handia daukat.

Danok Baten, Athleticen, Celta de Vigon, Eibarren, Irunen eta Logroñesen egon naiz, besteak beste.

Niretzat talde onena Eibar izan zen. Vigon ere gustura egon nintzen, baina Eibarren esperientzia izugarria izan zen. Lehen taldearekin entrenatzen nuen eta oso pozik ibili nintzen.

Hala ere, gogorra ere bazen. Izan ere, asteburuetan, Jose Luis Mendilibarrek lehen taldearekin ez ninduenean eramaten, filialarekin joan behar nintzen.

Hau da, 1. mailako taldearekin astea igaro ostean, 3. mailara jokatzera jo behar nuen. Sekulako nagia sortzen zidan horrek. Erlaxatzen nintzen.

Noizbait pentsatu duzu zure bizitza nolakoa izango litzatekeen futbolean jokatuko ez bazenu?

Ez. Gainera, oso gazte joan nintzen Laudiotik. 17 urte nituen eta ez dut inoiz pentsatu. Familiatik urrun egotea gogorra da. Harreman oso estua eta ona dugu eta kanpoan nagoenean txarto bizi naiz. Hemendik ibiltzen naizenean denetarik egiten dugu elkarrekin.

Jokatzeari uzten diodanean, ordea, badakit zer egin nahi dudan; Athleticen kirol zuzendaria izan nahiko nuke noizbait.

Athleticera iritsi nintzenean, duela urtebete, Jose Mari Amorrortu oso pertsona jatorra eta ona dela ikusi nuen, eta oso langilea. Hori kanpotik ez da sumatzen. Pentsatzen ari nintzen futbolaren ostean zer egin nahiko nukeen eta egunero ikusten nuen Jose Mari Amorrorturen lana, eta ondorioztatu nuen bera bezalakoa izan nahiko nukeela.

“Nire esperientzia onena futbolari gisa Eibarren izan zen”

Inoiz ez nuen horrelakorik aldez aurretik pentsatu, baina bera ikustean ulertu nuen hori nahi nuela. Jokalari askok uzten dute, eta beste jokalariak ordezkatzeko enpresak sortzen dituzte edo entrenatzaile bilakatzen dira. Oso arrunta da, baina nik ez dut entrenatzaile lana gogoko. Zuzendaritza, ordea, bai.

Kirol zuzendaritzari buruz maiz hitz egiten da, baina futbol mundutik kanpo gaudenok ez dakigu zehazki zertan datzan. Zer egiten du Jose Mari Amorrortuk, esaterako?

Lehenik eta behin, telefonoa gainean eraman behar duzu beti. Adibidez, Jose Mari egunero igarotzen zen Lezamako talde guztien entrenamenduetatik, laguntzen zuen, erizaindegira joaten zen guztiei buruz galdetzera... Aita baten moduan, ez da buruzagia, laguntzailea baizik.

Aintzat hartu beharra dago Athletic ez dela edonolako kluba; merkatua oso itxia da. Esaterako, Fran Garagarza Eibarreko zuzendariari mundu osoko jokalarien ordezkariek deitzen zioten. Jose Mariri, ordea, ez.

Oso handia da aldea lehen mailaren eta gainerako mailen artean?

Dena da ezberdina: entrenamenduak, fisioterapeuta, azpiegiturak... 2. B mailako taldeak onak dira, baina 1. mailan dirutza dago.

Puntako jokalariak ezagutu dituzu urte hauetan, ezta?

Bai, Santi Mina lagun mina da oraindik eta maiz hitz egiten dugu. Borja Iglesias ere, Ruben Blanco, Dani Garcia, Ruben Capa, Sergi Enrich... Lagun ugari egin ditut.

kirola

KROSA

Otsailaren 9an egingo da Etxaurren Ikastolako krosa

Testua
Julen Solaun Martinez



Hainbat adinetako haur eta nerabeek hartuko dute parte krosean. **Aiaraldea.eus**

Datorren igandean (otsailaren 9an) egingo da aurtengo Etxaurren Ikastolako eskola kiroleko krosa, kategoria anitzeko probekin. Era berean, adin guztientzako herri lasterketa ere antolatuko da, oharrean adierazi bezala, "euskara eta kirola bultzatzeko".

Eskola kiroleko sei lasterketa antolatuko dira, bina kategoria bakoitzeko (benjaminak, kimuak eta haurrak), bat emakumezkoentzat eta beste bat gizonezkoentzat. Inskripzioa egiteko epea 10:00etan hasiko da egunean bertan.

Lasterketak 11:00etan hasiko dira haur kategoriako neskekin, eta 12:10etan amaituko dira mutil benjaminekin. Bi zirkuitu konbinaturik egingo dira ibilbide guztiak: A zirkuituak 900 metroko luzera izango du, eta B zirkuituak 400 metrokoa. Herri lasterketak, berriz, 12:25ean eta 12:40an hasiko dira, hurrenez hurren. Lehenengoa adin guztientzat izango da, eta 400 metroko ibilbidea izango du soilik. Bigarrena, aldiz, helduentzat bakarrik izango da, 3600 metroko ibilbidearekin.

BORROKA KIROLAK

Asier Ispizua laudioarrak K1 Slam borrokaldian parte hartuko du Bilbon

Testua
Aitor Aspuru Saez



Asier Ispizua Laudion egindako borrokaldi batean. **Aiaraldea.eus**

Asier Ispizua Hajime klubeko kirolariak K1 Slam borrokaldian parte hartuko du otsailaren 8an La Casillan. Laudioarrarentzat hitzordu berezia izango da, puntako ekitaldia baita.

"Aurtengoa 6. edizioa da eta garrantzitsuena izango da. Enfusion eta YSKA txapelketetako irabazleak kontratatu dituzte. Munduko eta Europako txapeldunak, alegia" azaldu du kirolariak.

Aurreko edizioan ere egon zen Ispizua: "Irabazi nuen eta uste dut oso itxura ona eman nuela. Horregatik hartu naute berriro aintzat".

Muay Thai ("Sarikadong" profesional famatuarekin) eta K1 diziplinak ez ezik, boxeoa eta MMA kirolak ere landuko dituzte.

Boxeoan, esaterako, Jon Fernadez Etxebarriko kirolaria arituko da. Hainbat aldiz txapelduna izan da hainbat federazioetan eta Estatu Batuetan ere behin baino gehiagotan borrokatu da.

MMAn Jose Jimenez eta Enoc Solves igoko dira ringera. Biak lehiatzen dira M1 liga errusiarrean eta Enoc Solves UFC txapelketa amerikar ospetsuan borrokatzeko bidean dago.

Luigi Aranaren aurka

Asier Ispizuari dagokionez, Luigi Arana izango du aurrean. Arana bolibiarra da jatorriz, baina Bilbon bizi da eta Elite Sport taldeko kidea da.

Aurretik birritan adostu dute borroka, baina ezin izan dute gauzatu. Laudioarrak azaldu du: "Mix Fight batean borrokatu behar ginen, baina nik lesioa nuen begian eta ezin izan nintzen lehiatu. Beste Mix Fight batean ere neurtu behar genituen indarrak, baina, azkenean, beste aurkari batzuk egokitu zitzaizkigun".

K1 Slam borrokaldia ikusteko, Ispizuak azaldu du bi aukera daudela. Alde batetik, Kutxabank bidez sarrerak lortzea edo berarekin harremanetan jartzea horretarako, bere Instagram kontua erabilita.

RAIDA

Aiaraldeko Raidaren laugarren edizioa egingo da otsailaren 29an Urduñan

Testua
Julen Solaun Martinez

Aiaraldeko Raidaren laugarren edizioa egingo da otsailaren 29an Urduñan. Iberian Outdoor Raid Series eta Liga Norte de Raids Aventura txapelketetarako proba puntuagarria izango da.

Lau ibilbide egongo dira guztira, hiruk raida osatuko dute eta rogaine ibilaldia ere egongo da. Mendiko bizikletakoa izango da luzeena, 42 kilometro eta 1.600 metroko igoera baitu. Trekking eta espeleologia modalitatean 18 kilometroko ibilbidea egin beharko dute partaideek, 650 metroko igoera totalarekin.

Orientazio Urbanoko mailan, berriz, bost kilometroko luzera eta hirurogeita hamar metroko igoera egongo dira soilik, baina memoriaz egin beharko dute ibilbidea lasterkariek, antolakuntzak programatutako kontrol guztiak igarotzea beharrezkoa izango delako. Hiru kategoria horietan ibilbidea zazpi ordu baino gutxiagoan egin beharko da, eta 10:00etan hasiko dira.

Rogaine ibilbidean, eguerdian hasiko dena, aldiz, hogei kilometroko trekking eta espeleologia egin beharko dira lau orduan, gehienez jota, 700 metroko igoerari aurre egin beharko diote ere partaideek. Amaitzean, kirolari guztien arteko bazkaria egingo da.

Lau kategoria egongo dira guztira: mistoa, gizonezkoena, emakumezkoena eta aipatutako rogainea. Mistoan gizon eta emakume batek parte hartu beharko dute. Gizonezkoen eta emakumezkoen kategorietan, aldiz, talde bakoitzeko bi partaideak genero berdinekoak izan beharko dira. Roiganean, ordez, ez da genero bereizketarik egingo. Kategoria bakoitzeko lehenengo hirurei saria emango zaie eta, sari-banaketa amaitzean, kirol materialaren eta tokiko produktuen zozketa ere egingo da.

Oinarriak

Raida izanik, partaideek ezin izango dute komunikazio materialik erabili, ezta GPSrik ere. Talde guztiek iparrorratz, telefono mugikor eta botikin bana eraman beharko dute. Ondoren, partaide bakoitzak derrigorrezko material espezifikoa eraman beharko du ere: Litro bat ur, haize-babes bat, kamiseta termikoa eta txilibitu bat, besteak beste. Modalitate bakoitzeko materiala ere eraman beharko dute parte hartzaileek.

Izen ematea

Lasterketa egiteko ezinbestekoa izango da aldez aurretik izena ematea, antolakuntzaren webgunean: sites.google.com/site/raidaiaraldea. Webgunean probaren inguruko informazioa kontsultatu ahalko da, ibilbidea, arauak eta ordutegiak barne.



Raidaren edizio zahar baten irudia. **Aiaraldea.eus**

kirola

TXIRRINDULARITZA

Eskualdeko 4 kirolari arituko dira Euskadi Fundazioan



Urtarrilean egin zuten taldearen aurkezpena. **Euskadi Fundazioa (C)**

Testua
Aitor Aspuru Saez

Urtarrilean egin zuen Euskadi Fundazioak aurtengo taldearen aurkezpena. San Mames hautatu zuen horretarako eta jakin-mina eragin zuen ekitaldiak.

Mikel Landa presidentea ez ezik, Purito Rodriguez eta Igor Anton ere ikusteko aukera egon zen. Edonola ere, protagonistak taldeko txirrindulariak izan ziren. Horien artean Aiaraldeko 4 aurpegi ezagun daude. Emakumezkoen taldean Uxue Albizua, Jone Otaola eta Zuriñe Otaola lehiatuko dira berriro.

Uxue Albizuak adierazi du aurtengo taldekide berriak ezagutzeko baliatu zuela aurkezpena eta dagoen giro ona nabarmendu du: "Uste dut aurten zerbait polita egingo dugula".

Albizuak argitu du bere helburua denboraldi ona egitea dela, erorketarik ez izatea eta podiora igotzea, nahiz eta zaila izango den. Printzipioz, Euskal Herrian lehiatuko da, baina bere xedea Espainiako Txapelketan parte hartzea da. Horretarako hautatua izan beharko da.

Gotzon Martin elitean

Gizonezkoen Elite taldean Gotzon Martin orozkoarra egongo da. Iaz ere horretan militatu zuen eta garaipena eskuratu zuen Portugalen. "Jarraitzeko motibazioa eman zidan horrek", azaldu du Martinek.

Berez, Orozkoko txirrindulariaren asmoa hobetzea eta denboraldi ona egitea da. Euskadi Fundazioaren lehenengo erronka Argentinako San Luisen izango da, eta gero Mallorca, Murcia edota Andaluziara joko dute, baita Italiara ere.

Nola ez, taldearen egutegian Euskal Itzulia da hitzordu garrantzitsua.



Gizonezkoen Elite taldean egongo da Gotzon Martin. **Euskadi Fundazioa (C)**

ESKUPILOTA

Labakak eta Telletxeak irabazi dute Herriaren txapelketa, hirugarrenez

Testua
Julen Solaun Martinez

Labaka eta Telletxea izan ziren Aretako Herriaren Pilota Txapelketako garaileak hirugarren urtez jarraian. Iragan urtarrilaren 24an jokatu zen finalean 22-12 gailendu ziren Murua eta Albizu bikotearen aurka.

Promesen kategorian, Aretako Txapelketaren V. edizioan alegia, Hormaetxe eta Egaña izan ziren norgehiagokaren irabazleak, Alonso II eta Etxebarria garaituta. Kasu honetan ere berdina izan zen emaitza, 22-12 geratu baitzen markagailua.



Aretako frontoian jokatu zen txapelketa. **Juanfer Oleaga**

Gazteen kategoriako lau t'erdiko finala, aldiz, Eskuzak irabazi zuen, Piconen kontrako partiduan 18-8 irabazi baitzuen.

TXIRRINDULARITZA

Hamalau kideko eskola taldea osatu du Laudioko Txirrindularitza Elkarteak



Asier Ispizua Laudion egindako borrokaldi batean. **Aiaraldea.eus**

Testua
Julen Solaun Martinez

Laudioko Txirrindularitza Elkarteko eskola kategoriako Aiarabike taldeak hamalau txirrindulari izango ditu 2020. denboraldian.

Eskola kirola izanik, Araban soilik egingo dituzte lasterketak, hiru modalitatetako probak tartekatuta: mendiko bizikleta, ginkana eta errepidekoa. Era berean, kategoriako bi lasterketa Laudion antolatzeko asmoa plazaratu dute.

Taldean arituko diren kirolariek, lasterketetatik aparte, bi aldiz entrenatu beharko dute astero kide guztiekin batera. Gauzak hala, Jose Angel Arza elkarteko kideak adierazi duenez, udalarekin ari dira hizketan, mendiko bizikleta eta ziklokrosean entrenatzeko baliagarria den zirkuitu bat sortzeko asmoarekin.

Ginkana, aldiz, Aldai plazan egiteko asmoa dute taldetik. Horrek herrian oinarri txirrindularitza bultzatzen lagundu dezakeela uste du Arzak: “Laudion milaka bizikleta eta zikloturista daude, baina eskola kategorian ez genuen ezer”.

Etorkizunari begira, iraganean izandako eskola, kadete eta gazte mailetako proiektu bilakatzeko nahia ere azaldu du kideak, baina “suabe-suabe eta poliki-poliki” egin beharko dutela eta “zaila” izango dela ere aitortu du.

Dena den, momentu honetan Aiaraldeko txirrindularitzaren egoera iraganean bezain txarra ez dela gehitu du Arzak, dagoeneko eskolako bi txirrindularitza talde baitaude eskualdean, Laudion bata eta Amurrion bestea.

herriko plaza

Idatzi zure mezua eta bidali argazkia agurrak@aiaraldea.eus helbidera eta Aiaraldea.eus atarian plazaratuko dugu. Otsailaren 19an argitaratuko da hamabostekariaren hurrengo zenbakia.



Xare

Gure etxeko poxpolin marisorginari milaka musu eta besarkada! 3 urte!

Familia



Aitor

Zorionak Aitor! Utzi liburutegia eta segi frontoira!

Lagunak



Beñat

Zorionak Aginako!! Jarraitu urte luzez Urduña astintzen!

Lagunak



Julen

Zorionak Yarri!! Ez desesperatu ikasketekin ta hartu tartea zure eguna ospatzeko!

Lagunak

BIDALI ZURE ZORION AGURRA!

Denborapasak



	Haitzuloak, harpeak / Gogoz	▼	Koska / Eza	▼	Galiziako ibaia / Zakar, latz	▼	Australiako martsupiala	
▶		▼		▼		▼		
	❖ DEITURA / Pipatzeko landarea	▶						
▶								
Elefaneteen arbasoak / Muina, funtsa	▼	Dauzka / Udate	▼	❖ IZENA / Hegaztien errege	▶			50 / Kasik	▶
▶		▼		▼	Zotza / Bokala	▶		▼	
Masail / Aurpegiaren erdian	▶				▼		Bokala / Sutea	▶	Leku
▶					Alderantziz, begirada / Sobera	▶	▼	Kontso-nantea / Egoskin mota	▶ ▼
Herri hizke-ran, eta / Ibarrak, arroak	▶		Aluminioa / Kanpo, landa	▶	▼	Beribil / Modu atzizkia	▶	▼	
▶			▼			▼	Korrikaren antolatzaile / Potasioa ▶		
Dohainik, doan	▶						▼	Mina adierazteko ▶	

❖ Historialari laudioarra

ERRAZA

	7					2		
6				3		7		5
	5	3		7		6	8	
			5	2	9	3	6	8
3	2		8	4			5	
5	8				6		7	
4	3	5	7	8	2			6
	6	7		5			3	4
8	9		4	6	3	5		7

			8	5				
		3	6		2	1	4	
					1		2	5
9		1	2		3	7	8	
		2		9	4		3	
4					5	9	1	
2		8				3	9	
6				2				1
	4					2		

ZAILA

					3		5	
4	6			2	5			
		5		9	4	6	1	3
						8	2	
				5		9		
7			8					
	3		7					4
	2						9	

		2			4			
			8			3		
3		5			2		4	
4								
	8			1	5			6
		7				5	1	9
			4			6		
				7				1
					6		5	

DENBORAPASEN SOLUZIOAK

Sudoku, hitz-gurutzatu eta hitz gezidunen soluzioak webgunean ikusgai: http://www.aiaraldea.eus/users/denborapasak

Lan-eskaintzak

Elektromekanikaria LAUDIO
Elektromekanikako teknikaria LAUDIO
Atzerako hondeamakina gidaria AMURRIO
Puntzonatzailea erabiltzeko langilea AIARA
Zerbitzaria AIARA
Kamioi artikulatuko gidaria AMURRIO
Arraindegi langilea AMURRIO
Nagusien zaintzarako langilea LAUDIO
Elkarrizketatzailea LAUDIO

LAN-ESKAINTZA GEHIAGO AIARALDEA.EUS ATARIAN

Guardiako farmaziak

Otsailak 6 CACERES (errefortsua YARZA) eta EGUIA
Otsailak 7 YARZA eta ANA FUERTES
Otsailak 8 YARZA eta AIS (errefortsua ANA FUERTES)
Otsailak 9 YARZA eta AIS
Otsailak 10 FERNANDEZ (errefortsua PEREZ) eta RIVERA
Otsailak 11 IBARROLA (errefortsua HERNANDEZ) eta CARLOS FUERTES
Otsailak 12 PEREZ eta SOLAUN
Otsailak 13 HERNANDEZ eta MENOYO
Otsailak 14 PEREDA eta EGUIA
Otsailak 15 PEREDA eta ANA FUERTES (errefortsua EGUIA)
Otsailak 16 PEREDA eta ANA FUERTES
Otsailak 17 CACERES (errefortsua PEREDA) eta AIS
Otsailak 18 YARZA eta RIVERA
Otsailak 19 FERNANDEZ (errefortsua YARZA) eta CARLOS FUERTES

Zozketa



"Satorjator, lurraren bihotzera bidaia"

ikuskizunerako sarrera bikoitza

Otsailaren 23an
Amurrio Antzokian

Parte hartzeko sartu www.aiaraldea.eus-en
Zozketa data: Otsailak 21, 12:00etan.

Aiaraldea txiki

Hamaika

...Bai, arrazoi duzue. Eskolako bazkaria ez da beti gustukoena izaten. Alde ederrekoak izaten dira amatxiren kroketak! Baina ahaztu hori, eta bila itzazu bi irudi hauen artean dauden hamaika ezberdintasunak.




Badakizu zer dioen esaera zaharrak?

Otsaila bero, negua gero

Graffitia

Imajina ezazu ondoko hau zure eskolako pareta dela. Egin ezazu graffiti lotsagabe samar bat. Edo nahiago baduzu, aldarrikatu ezazu zerbait, idatziz.



SOLUZIOAK



Hamaika ...Bai, arrazoi duzue. Eskolako bazkaria ez da beti gustukoena izaten. Alde ederrekoak izaten dira amatxiren kroketak! Baina ahaztu hori, eta bila itzazu bi irudi hauen artean dauden hamaika ezberdintasunak.

Kontra

Aiaraldetik mundura



Ainara Berrocal

JAIOTERRIA
LAUDIO (1992)

BIZILEKUA
PERU

BIDAIAREN ARRAZOIA
MEDIKU GISA ARITZEA

“Medikuntza alternatiboari garrantzi handia ematen diote Perun”

Perun zabiltza orain. Zertan?

Gure lanean hilabete bateko kanpo errotazioa egiteko aukera ematen digute eta Perura etortzea erabaki genuen. Familia eta komunitateko mediku egoiliarra naiz eta beste egoiliar batekin batera, Miren Arrazolarekin, abentura honetan murgildu naiz. Egoiliar-truke programa baten bidez Huancayora bideratu gaituzte, poliklinikoko batean lan egiteko, eskualdeko lehen mailako arreta sistema ezagutzeko. Huancayo 3.259 metrora dagoen Junineko herrialdeko hiriburua da, Peruko erdialdeko mendi-katean aurkitzen dena. Aurretik ez genuen ezagutzen, ez baita Peruko gidetan agertzen den leku turistiko tipikoa, baina inguruneak liluratuta utzi gaitu, egia esan.

Zertan datza zure egunerokoa bertan?

Peruko osasun sistema ezagutzeko asmoarekin etorri garenez, errotazioa hainbat kontsultetatik eta osasun sistema ezberdinetatik egin dugu (gaixotasun kronikoen kontsulta, larrialdiak, pediatria, Oihan Zentraleko osasun sistema ezagutu dugu, medikuntza alternatiboa...). Esperientzia oso aberasgarria izan da alde horretatik eta hainbat profesionalekin harremana izateko aukera eman digu. Horrez gain, gure aisialdian Huancayoko inguruneak ezagutu ditugu: Huaytapallana mendia, Jauja, Huancaya, Oihan Zentraleko urjauziak...

Zer da Perutik gehien harritu zaituena?

Lanean mediku-paziente harremanean dagoen errespetua eta lankideen arteko formaltasunak harritu nau, baita pazienteek medikuengan jartzen duten konfiantzak ere. Gure osasun sistema publikoarekin alderatuta, medikuntza alternatiboari garrantzi handia ematen diote: akupuntura, fitoterapia, Tai Chi... Horrekin batera lan egiten dute, medikuntza zientifikoaren osagarri gisa, osasun zentroan bertan.

Lehen azaldu dudanez, Oihan Zentraleko osasun sistema eta bertako Nomatsigenga komunitatearen bizimodua ezagutzeko aukera izan dugu. Oso bizipen polita eta oparoa izan da: beraien bizimodua, beraiek egindako eta landutako janari eta edari tipikoak dastatzea, bertako hizkuntza ezagutzea, beraien musika eta dantza entzun eta ikustea...

Azken esperientzia hau gure bizimoduarekin alderatuta erabat ezberdina izan da (pentsaezina, zentzu batean ere) eta horrek harritu izan nau gehien.

Huancayo Peru osoan da ezaguna bertako festa giroagatik. Horren harira, oso ohikoa izaten da kalean musika edota dantza giroa aurkitzea. Gure herrian bezala, familian batzen dira ospatzeko, janaren inguruan. Gastronomiaren aldetik oso aberatsa den lekua da, batez ere *cevicheagatik* ezaguna.

Euskal Herriko jendearen antza daukatela esan daiteke: hasieran apur bat lotsatiak iruditu arren, oso jatorrak eta hurbilak dira eta hasieratik egin digute harrera beroa, gure etxean bezala eta beraien familiaren parte sentiaraziz.

Laster itzuliko zara Laudiora. Baduzu Perura itzultzeko asmorik?

Nahiz eta gertukoen hutsunea sentitu, bueltatzeak pena handia ematen dit, oso gustura egon bainaiz. Oraindik erresidentzia bukatu behar dut Euskal Herrian eta ezin izango naiz bueltatu, oporretan ez bada. Baina etorkizunean,

PERU



DESKRIBAPENA
Lurraldea Inka Inperioaren esku egon zen XV. mendera arte. Espainiako Erreinuak konkistatu zuen lurraldea orduan. 1821. urtean aldarrikatu zuten independentzia. Ordutik hona gobernu sistema ugari izan ditu herrialdeak, hainbat estatu kolperekin batera.

AZALERA
1.285.216 kilometro koadro.

BIZTANLEAK
32,4 milioi biztanle.

HIZKUNTZA
Espainiera eta beste hainbat hizkuntza indigena (kitxua eta aimara kasu).

Argitaratzailea:
Aiaraldea Kooperatiba Elkartea
Tirada: 10.000 ale.
Maiztasuna: Hamabostekaria
Lege gordailua: BI-1230-2013
Posta elektronikoa:
egunkaria@aiaraldea.eus
agenda@aiaraldea.eus
agurrak@aiaraldea.eus
Publizitatea:publizitatea@komunika.eus
Tlfnoa: 688 62 53 94
Helbidea: Nerbioi Kalea 12, behea. Laudio. Araba. 01400
Telefonoak: 94 656 85 54/688 62 59 00
Web-gunea: www.aiaraldea.eus
ERREDAKZIO OHARRA: Aiaraldea Aldizkariak ez du bere gain hartzen iritzi artikuluetan, zein egindako elkarrizketetan adierazitakoaren erantzukizuna.

ESKER BEREZIAK BANATZAILE BOLUNTARIOEI:
Xabier Ugalde Gulias, Jabi Asurmendi Sainz, Unai Llano Anda, Eider Solatxi, Alberto Martinez Gutierrez-Barquin, Ali Orue Del Valle, Garrastatxu Landaluze Okeranza, Genma Corbella Eguiluz, Unai Vicente Basterra, Estibaliz Bideguren Otaola, Aitor Fernandez de Pinedo, Endika Arribas Gulias, Eunate Molinuevo Olabarria eta Koldo Rodriguez

EGUNKARI HAU LAGUNTZEN DUTE:

orozko · URDUÑA ORDUÑA · Artziniegako Udala · Arrankudiaga Zollo Udala · Aiarako Udala Ayuntamiento de Ayala · Arakaldo · Okondoko Udala · Laudio Udala Ayuntamiento de Llodio · Amurrio

G! Graf!k
Tellería 2, Laudio (Araba)
94 672 65 43// info@grafiksarea.com

ausolan · Basalarrina euskal Topagunea

Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA